

Sakontze egitasmoa
HIZNET hizkuntza plangintza
graduondokoa
2011/2012

EUSKALDUN BERRIAK
LANEKO EUSKARAZKO
DINAMIKETAN

Ikaslea: Josune Urbieta Aizpurua
Irakaslea: Xabier Erize

1. AURKIBIDEA

1.	AURKIBIDEA	2
2.	SARRERA	3
3.	EGITASMOAREN HELBURUA	4
4.	TXOSTENAREN EGITURA	5
5.	KOKAPEN TEORIKOA, EGOERA	5
5.1.	Hizkuntzaren jabekuntza:teoriak	6
5.1.1.	Txepetxen teoria	6
5.1.2.	Bigarren hizkuntzaren jabekuntza eta hizkuntzaren erabilera	9
5.2.	Hizkuntza input ulergarria: bi egitasmo	16
5.2.1.	KONPRENITZEN ekimena	16
5.2.2.	Etorkinek lanaren bidez euskara ikasi ekimena.....	18
6.	IKERKETAREN HIPOTESIAK.....	20
7.	FAGOR ARRASATEKO EUSKARA PLANA	20
7.1.	Fagor Taldea eta euskara	21
7.2.	Hego haizea Fagor Arrasaten (1999-2002)	28
7.3.	Ipar haizea Fagor Arrasaten (2002-2004).....	31
7.4.	Badator traganarrua (2005etik aurrera)	33
8.	METODOLOGIA.....	35
9.	EMAITZAK	37
10.	EMAITZEN EZTABAIDA ETA ONDORIOAK	47
11.	BIBLIOGRAFIA	55
12.	ERANSKINAK	56
12.1.	Galdetegia	56
12.1.	Elkarrizketak	57

2. SARRERA

Azken urte hauetan, kooperatiben munduko lantegi askotan (Fagor Taldea adibidez) Euskararen Normalizaziorako Planak inplementatzearekin batera Euskara Eskolak jarri izan dira martxan. Euskararen ezagutza arloan, enpresa batzuetan lehen aipatutako eskolez gain zenbait berariazko ikastaro ere antolatu ohi dira bakoitzaren lanarekin erlazio zuzena izan dezaketenak eta mintza saioak ere ia enpresa guztietan jarri ohi dira martxan euskaldun berriek (eta zenbaitetan zaharrek) euskaraz hitz egiteko dituzten zailtasunei edo lotsei aurre egiteko.

Iñaki Marko ikerlariak ere erakundeetan euskararen normalizaziorako kudeaketa sistema batek ezagutzaren kudeaketa kontuan hartu beharrekoa dela azpimarratzen du eta horretarako kontuan hartu beharko lituzkeenak aipatzen ditu:

1. Kontuan hartuko du normalizazio prozesuaren garapen hobezinerako beharrezko diren gaitasunak (komunikatiboak, hizkuntza erabiltzeko, eta teknikoak, interbentzioan parte hartzeko) areagotzearen eta ezagutza kolektiboan integratzearen garrantzia eta
2. Estrategiak garatuko ditu normalizaziorako gaitasun komunikatiboen eta teknikoen sozializaziorako behar diren ezagutzak areagotzen, sortarazten, partekatzen, aplikatzen, berritzen eta kolektibizatzen lagunduko duten sistematikak operatibizatzeke. (Marko, 2009, 517orr.)

Beste batzuetan berriz, langile batzuk lan orduetatik kanpo euskara ikastera joan ohi dira. Ikastearekin batera, batzuetan era paraleloan eta besteetan lanak berak hala eskatuta euskaldun berri horiek laneko euskarazko dinamiketan txertatu ohi dira (Erabilera Taldeak, Batzar Nagusia, lanarekin lotutako aldizkaria, sailletako bilerak...) eta hizkuntza hori lanean ere erabiltzen hasi dira.

Sakontze egitasmo honek tipologia horretako euskaldunak aztertu nahi lituzke eta batez ere erabiltzen hasi eta euskal dinamiketan arrakastaz txertatzea lortu dutenak nola lortu duten jakin, lorpenean zein faktorek eragin duten ikertu eta ahal balitz arrakastarako gakoak identifikatu.

Bestalde, lanean euskara ikasten hasi, urte batzuetan euskara ikasten aritu eta prozesua bertan behera utzi dutenen esperientzia ere jasoko da.

Euskalduntzeko bidean hasi eta bertan behera uzteko zein faktorek eragin duten aztertuko da, uztearen zergatietan sakondu eta Euskara Plana enpresan izan arren zer laguntza eskertuko luketen identifikatzeko.

Horrela, arrakasta lortutakoen gako horiek identifikatuz gero, orain lanean euskara ikasten ari direnei laguntzeko eta bidea errazteko moduak argiago izango genituzke etorkizunean, Euskara Plana duten enpresetan aplikatu ahal izateko.

3. EGITASMOAREN HELBURUA

Lan honetan, lan munduan euskarazko dinamiketan euskaldun berriak arrakastaz aritzeko gakoak aztertu nahi ditut, Fagor Arrasate Coop.-ko euskara planean oinarrituta. Bide batez, euskara ikasten aritu eta euskarazko dinamiketan arrakastaz txertatu ez diren kasuak ere aztertuko ditut. Izan ere, azken 6 hilabetetan euskararen erabilera planeko teknikari lanetan nabil eta euskararen ezagutza eta erabileraren arteko bidea edo ibilbidea ikertzeak asko lagunduko didala iruditzen zait, etorkizunean Fagor Arrasateko euskara planean euskararen erabilerarako ildo berriak eta euskarazko dinamikak ugaltzeko bidean.

Egitasmo honen izateko arrazoi nagusiak hauek lirateke:

- Alde batetik, azken urte hauetan kooperatiban negozioetako bileretan euskara gehiago erabiltzeko jartzen diren helburuetan nola eragin ikasteko eta horretan bide berriak jorratzeko gako batzuk eskuratzea, nahikoa baita taldean erdaldun bat egotea bilera gaztelania hutsean egiteko.
- Bestetik, lanpostu eta kontratazio berrietarako Fagor Taldeak 2006an onartutako ZEL aruaren arabera, lanpostu bakoitzak bere hizkuntza eskakizuna du eta kontratatzeko garaian betetzen ez badu ere, bazkide egiteko momentuan kontuan hartuko da ulermen maila minimo batzuetara iritsita egotea, nolabait bilera eta elkarrizketetan euskaldunak euskaraz egiteko eskubidea berma dadin. Beraz, hizkuntza politika ere argi eta garbi euskararen erabilera handitzeko estrategietan oinarritzen da.
- Gainera, lan-jarduna gaztelaniaz gauzatzeko ohituratik euskaraz gauzatzeko ohiturara langile batzuk salto egin badute, beste batzuk zergatik ez duten gauza bera egin aztertuko litzateke.

4. TXOSTENAREN EGITURA

Lehenik eta behin helburua finkatzetik hasiko naiz: euskara planetan ohikoa den metodologia (ezagutza, erabilera eta motibazio ardatzak) kontuan hartuta erabilera areagotzeko euskarazko dinamikek duten garrantzia azpimarratuko dut. Horretarako gaiari buruzko teoria eta ikerlanek zer dioten jakin beharko litzateke, eta horixe egingo dut bigarrena atalean, hain zuzen ere, hizkuntzaren jabekuntza eta erabilerarekin lotutako ikerlanen ikuspegiak aztertzen saiatuko naiz (alde batetik Txepetx soziolinguistaren teoria eta bestetik Soziolinguistika klusterraren eskutik bideratutako Aldahitz proiektuak oinarri hartu duen Stephen Krashen psikolinguistaren teoria) .

Hirugarren atalean, lan munduan, inguruan horrelako esperientziarik izan den aztertzeraz joko dut. EMUN lana euskalduntzeko kooperatibak eskarmentu handia du lan arloko euskara planetan eta momentu honetan bertan gai honekin lotutako bi esperientzia interesgarri ditu martxan. **Konprenitzen** egitasmoa (langile erdaldunak euskarazko bileretan ulermenera iristeko egitasmoa) eta **Petra Elser-ekin** batera etorkinek etxez etxeko laguntza euskaraz ematen ikasteko egitasmoa.

Oinarri hori garatu ostean maila enpirikora pasatuko naiz bosgarren atalean eta Fagor Arrasateko euskara planaren barruan euskara ikasteko prozesuan parte hartu duten 8 pertsonari elkarrizketa pertsonalak egin ondoren, haien esperientzietatik jasotako ondorio eta emaitzak azalduko ditut. 4 pertsona euskara dinamiketan arrakastaz funtzionatzen duten euskaldun berriak dira eta beste 4 momenturen batean euskara ikasten ibili baina orain utzita dutenak.

Bukatzeko bide hori jarraitzetik ateratako ondorio eta ikaskuntza nagusiak eta aurrera begirako asmoak zerrendatuko ditut eta amaitzeko erabilitako bibliografia eta eranskinak gehituko ditut.

5. KOKAPEN TEORIKOA, EGOERA

Ikerketa honen jomugan bi kontzeptu agerian geratzen dira beti, alde batetik hiztun horien hizkuntzaren jabekuntza eta bestetik euskarazko dinamiketan parte hartzean, erabilerarako saltoa nola egin duten edo nola ez duten egin.

Ikerketa teorikoa egiteko orduan ere, bi alderdi horiek era berezitan aztertuko ditut, gero bien arteko lotura egiten saiatuko naizen arren.

5.1. HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA:TEORIAK

5.1.1. Txepetxen teoria

Lehenik eta behin kontuan hartu dudan ikerlana Sanchez Carrionen "Txepetxen" *Un futuro para nuestro pasado* da. Bertan azaltzen ditu hololinguistika teoria edo euskararen hizkuntza plangintzaren paradigma.

Bere teorian hizkuntza bat ikasteko eta erabiltzeko prozesuak aztertzen ditu bereziki eta motibazioa, ezagutza eta erabilera ditu ardatz. Txepetxen ustez, motibazioa (hizkuntza bat ikastera eta erabiltzera bultzatzen gaituzten arrazoiak, nahiak edo interesak), ezagutza (hizkuntzaren funtzionamenduaz jabetzeko prozesua zein ahalmena) eta, azkenik, erabilera (une historiko jakin batean komunitateak edozein funtzio linguistikotan jardutea) elkar lotuta daude eta zirkuitu oso bat osatzen dute. Hiru elementu horien konbinaketaren edo loturaren arabera garatzen dira ikasketa prozesuak era naturalean (haurrenean: erabilera, ezagutza eta motibazioa berezkoak dira) edo kulturean (nerabe eta helduena: motibazioa, ezagutza eta erabilera induzituak dira) eta honen bitartez hizkuntza komunitatea artikulatu edo eratu egiten da.


- **Berezko ibilbidea, ibilbide naturala: A IBILBIDEA**





Euskara erabiliz, euskara ezagutzen hasten dira. Berezko motibazioa ere bereganatuko dute.

- **Ibilbide kulturala: B IBILBIDEA**







Helduak kulturazko motibaziotik abiatzen dira, lanak, inguruak, identifikazioak eta abar bultzatuta. Motibazioak nahikotasun maila gainditzerakoan, hizkuntzaren jabekuntza hasten da.

Beraz, *Teoria del aprendizaje* atalean argi azaltzen duen bezala, Txepetxen arabera motibazioa, ezagutza eta erabilera dira hizkuntza beten bizitzari eragiten dioten hiru faktoreak, eta hizkuntza bat ikasi (jabekuntza) eta erabiltzeko motibazioaren ontzian nahikotasun maila bat egon behar du ezagutzarena betetzen hasteko eta ezagutzarenean ere nahikotasun maila bat egon behar du erabilerakoa handitzeko.

Hizkuntzaren hiru faktoreak:

Nahikotasun
maila



Nahikotasun maila gainditu hizkuntza bizi dadin

5.1.2. Bigarren hizkuntzaren jabekuntza eta hizkuntzaren erabilera

Soziolinguistika Klusterreko **Aldahitz ikerketak**, *Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldaketak lan munduan* lana kaleratu zuen 2011ko uztailean eta bertan jabekuntza eta erabileraren arteko loturen marko teoriko hau aurki daiteke sakontasun osoz landuta.

Lan horretan hasieratik jabekuntza eta ikaskuntzaren arteko bereizketa azpimarratzen dute Stephen Krashen (1987) psikolinguistaren ikerketetan oinarrituta:

- **Jabekuntza eta ikaskuntzaren arteko aldea:**

Stephen Krashen psikolinguistak, bigarren hizkuntzaren ikastearekin lotuta, bi ezagutza mota berezi izan ditu bere lanetan: berezko ezagutza (jabekuntza) batetik, eta arrazoizko ezagutza (ikaskuntza) bestetik.

Praktikoa, erabilerari lotua eta ez-kontzientea da **berezko ezagutza**. Egoera komunikatiboan murgilduta egon eta input ulergarria luzez jaso ondoren, gure baitan berez sortzen den hizkuntza-gaitasunak ezin hobeto erakusten du berezko ezagutza nola garatzen den. Hari esker, hitzak eta esaldiak ahaztu datozkigu, eginak eta osatuak, geuk sortu gabe.

Ikaskuntza, indukzio eta dedukzio prozesu logikoen emaitza da. Arreta kontzientearen eremua da. Arrazoiaren eremua. Hizkuntzari buruzko ezagutza teorikoa: metahizkuntza. Hizkuntzaren gaineko kontrol kontzientearen erantzulea. Hizkuntzari buruzko arau sintaktiko, lexikal, morfologiko, pragmatiko, testuala eta abarren jakintza multzoa da arrazoizko ezagutza. Arrazoizko ezagutzez hornituz goaz ikaskuntzan dihardugunean. Eta ezagutza hauek esaldiak gure geuk sortzeko erabiltzen ditugu, itzulpenaren mekanismoaz baliatzen garela.

Izaera ezberdineko ezagutzak dira. Berezko ezagutza eskuratzea jabekuntza prozesuaren ardura da. Arrazoizko ezagutza ikaskuntzari lotzen gatzazkionean eskuratzen da eta ez besterik. Bakoitzak du bere prozesua.

Gizakiok hizkuntzarako genetikoki prestatuta gaude. Geure espeziaren burmuineko zirkuitu neuronal ugari daude jaiotzetik bertatik prestatuta hizkuntzak ulertu eta artikulatzeko.

Ikaskuntza prozesua ez da oinarritzen LAD mekanismoan (Hizkuntzaz Jabetzeko Mekanismoan), adimen orokorraren garapenean baizik. 12 urtetatik aurrera hasten dira nabarmen garatzen giza burmuinean. Adimen mota hau, orokorra izaki, edozein gairi aplikatu daioke: matematikari, psikologiari, ordenagailuari, eta noski, hizkuntzari ere. Baina, ez da gaitasun espezifiko bat hizkuntzarako.

Arrazoizko ezagutzak informazioa prozesatzeko denbora luzea behar izaten du. Berezko ezagutza, aldiz, bat-batekoa da, egoera praktikoa, dinamiko eta aldakorrari ziztu batean egokitzen zaiona.

Arrazoizko ezagutzak ez bezala, non arauak, printzipioak eta legeak esplizituki definitzen diren, berezko ezagutzan elementuek ez dute definizio positiborik. Berezko ezagutzan, elementu soilak baino gehiago haien arteko bereizketak, elkarmenpekotasunak eta harremanak nabarmentzen dira. Sistemaren osotasuna, alegia. Arrazoizko gaitasunean, aldiz, sistema osoari baino gehiago elementuen definizio zehatz eta positiboari ematen zaio protagonismoa. Izaera ezberdin honek argituko luke zergatik den horren zaila ezagutza batetik besterako aldaketa.

Gauzak horrela, hizkuntza batean komunikatzeko ezinbestekoa da jabetzaren prozesua garatzea, prozesu hau hizkuntzarako burmuinean dugun gaitasun espezifikoan bete-betean oinarritzen delako. Ikaskuntza prozesua, aldiz, ez da funtsezko, ez enborrezko, ez ezinbesteko ere. Honek, adimenaren gaitasun orokorrean oinarriturik, lagun diezaiokete, batzuetan, jabetzaren prozesuari, baina, baita ere, oztopatu eta blokeatu ere.

Aldahitz proiektuan, bi prozesuren arteko balizko harremanak identifikatzen saiatu dira jakiteko laguntza noraino iristen den eta oztopoak noiz hasten diren. Hona hemen **gakoak**:

- **Helduengan hizkuntzak eskuratzeko berezko mekanismoa dugu**

Bigarren hizkuntza eskuratzen ari diren gazte eta helduek, aldiz, berezko ahalmena dagoeneko galdua dutela eta, ondorioz, kontzienteki ikasiz baino ezin dutela egin uste nagusia izan da oraintsu arte. Uste hori erlatibizatzeke eta helduengan berezko ahalmenaren iraupena erakusteko ebidentzia ugari bildu ditu egungo ikerkuntzak.

Morfemen jabekuntzaz egindako ikerketek osatzen dute ebidentzia multzorik handienetakoa (Dulay eta Burt (1973), Bailey eta kideak (1974), Krashen eta kideak (1977). Littlewoodek (1986, 55-60 orr.). Ikerketa hauek morfema gutxi batzuek jabetzeko zailtasunari erreparatu zioten, alegia, ea zein morfema eskuratzen zen lehenago eta zein beranduago. Bariazio indibidualak agertu arren, morfema haiek eskuratzeko ordena oso antzekoa zen kasu guztietan eta estatistika irizpideen arabera oso adierazgarriak. Gainera, nahiz eta egoera ezberdinak begiz jo beti agertzen zen antzeko ordena. Ez zuen, nonbait, horretan eraginik izaten ikasleek lehenengo hizkuntza ezberdinak izateak, ez irakaskuntza gune formaletan ala informaletan gertatzeak, ezta ikaslea haurra ala heldua izateak ere. Antzekoa zen ordena egoera guztietan.

Horrek adieraziko luke, ikertzaile hauen aburuz, bigarren hizkuntzaren (aurrerantzean 2H) eskuratzailerik hizkuntza informazioa prozesatzeko estrategia unibertsalak erabiltzen dituztela, 2Htik barnetik abiatuz. Beste hitz batzuetan esanda, bigarren hizkuntzaren egiturez jabetzerakoan ikasleek erakusten duten berezko ordenak ez du zerikusirik eskolan buruz ikasi eta behin eta berriro landutakoarekin, ezta itzulpen mekanismoaren bidez lortutako lehenengo hizkuntzaren transferentziarekin ere.

- **Hizkuntza-inputa**

Hizkuntza eskuratzeko berezko mekanismo baten esku-hartzea hipotesi gisa hartu ondoren, hizkuntzaz nola jabetzen garen galdera garrantzitsua datorkigu burura. Krashenek input hipotesia formulatu du honi erantzunez.

Hipotesia horren arabera eskuratzailerik testuinguru egokietan esku hartu eta hizkuntza-input egokia jasotzen duenean gertatzen da hizkuntzaren jabekuntza eta lau ezaugarri behar ditu inputak jabekuntza prozesua abiatuko bada.

1. Inputak ulergarri izan behar du

Hiztunak mezuak igortzen dizkio ikasleari eta ongi ulertuak izan daitezten egokitzen zaio haren hizkuntza mailari. Hari nagusiari segitzearekin nahikoa izan daiteke hastapenetan. Ikaslea mezuak ulertzen ari den bitartean, berez eta konturatu gabe ari da hizkeraren gramatika eskuratzen.

2. Inputak ikaslearen arreta eta interesa erakarri behar ditu

Gaiaren erakargarritasuna da, nolabait esatearren, ikaslearen arreta mezuan enfokatzeko amua.

3. Inputak osoa izan behar du eta ez helburu gramatikalen arabera sailkatuta.

Oinarrizko hizkera ere hizkera osoa da. Bere erraztasunean sistema osoaren funtsezko ezaugarriak gordetzen ditu. Alegia, hizkuntza bere dinamismoan azaldu behar du inputak.

4. Inputak ugari izan behar du

Luzez egon behar du ikasleak hizkuntza ingurugiroan murgildurik, hizkera arrotzari esanahia emateko eta lehenengo hizkuntza hipotesiak sortzeko.

- **Aldagai afektiboen eragina**

Gure aldarte emozionalek zabaltzen eta ixten dituzte barneko ate batzuk, aktibatzen eta inhibitzen dituzte barne prozesu batzuk. Aldarte batzuek, esaterako, ikasteko plastikotasuna bizkortzen duten bezala, beste batzuek ahuldu egiten dute.

Zenbat eta larriago eta estuago sentitu pertsona bat hizkuntza-harreman batean, orduan eta gutxiago egiten du lan jabekuntza prozesuak.

Zerrenda genezake, orduan, pertsonaren hainbat aldagai larritasun txikiaz jokatzeko laguntzen dutenak: 1) Hizkuntzarekiko (kulturarekiko, historiarekiko, ezagutzen dituen hiztunekiko...) aldeko jarrera: identitatea, enpatia, maitasuna..., 2) Pragmatismoari darion jarrera zabala (“egin behar denez, ahalik eta etekin handienaz ateratzen egingo dugu”), 3) Auto-estimua eta norbere gaineko uste ona (“bai, egin dezaket, nire eskura dago, saiatzen banaiz lortuko dut”), 4) Baretasuna, egoera zailen aurrean lasai samar jokatzeko jarrera, 5) “Kiroltasuna”, akatsak naturaltasunez hartzeko jarrera. Eta hauek baino faktore gehiago izango dira seguruenera.

Larritasun handiak zerbait ixten digu barrenean. Baita hizkuntzaren jabekuntzaz ari garenean ere.

- **Ikaskuntza kontzientearen zeregina.**

Monitore baten irudiarekin pareka liteke arrazoizko ikaskuntzaren egitekoa. Monitorea erabiltzeko baditugu gutxieneko baldintza batzuk: 1) ikasleak arreta hizkuntza formetara bildu behar du, 2) aplikatu beharreko arauak ezagutu behar ditu ikasleak, eta azkenik 3) eragiketa horiek guztiak egiteko denbora eduki behar du.

Idatzitakoari errepaso bat ematen diogunean normalean hiru baldintza horiek ematen dira eta testua edertzeko, txukuntzeko edota zuzentzeko laguntza estimagarria eskain dezake monitoreak. Badira, ordea, solasaldia bezalako beste komunikazio jarduera zuzenak, non monitoreak erabili nahi izateak lagundu baino gehiago kalte egiten duen. Ahozko komunikazio zuzenean ez dago monitoreak erabiltzeko baldintza onik.

- **Komunikazio-estrategiak**

Pit Corderrek (1983) bereizketa hau egin zuen:

“**Bitartekoei mugatutako estrategiak**” daude batetik eta “**bitartekoak zabaltzeko estrategiak**”, bestetik. Ikaslearen eskuratutako gaitasunean oinarritzen da lehenengo estrategia multzoa eta gaitasun hori gainditu nahian bigarren multzoa.

“**Bitartekoei mugatutako estrategiak**” bigarren hizkuntzaren erabileran oinarritzen dira. Dagoeneko eskuratutako gaitasunean oinarritutako baliabideak erabiltzen ditu ikasleak. Bigarren hizkuntzaren erabileran murgiltzen da ikaslea eta hortik abiatuta aukerabideak hedatuko zaizkio inputaren bidez gaitasun gehiago eskuratu ahal. Bitarteko murrizkak dituen bitartean komunikazio esparrua ere murrizta izango du. Hala ere, bide ugari izango ditu hizkuntza zailtasunei aurre egiteko bigarren hizkuntzatik atera gabe, hala nola, adibideak emanaz, argibideak jarritz, itzuli-inguruak eginez, deskribapenak eginez, ideia bera azaltzeko adierazpide ezberdinak aukeratuz.

Aitzitik, hizkuntza gaitasunaren mugak gainditu nahi izateak, artean eskura gabeko bitartekoak erabili ahal izateko, lehenengo hizkuntzaz eta ezagutza gramatikalaz baliatzera darama ikaslea. Horregatik esaten da “**bitartekoak zabaltzeko estrategiak**” lehenengo hizkuntzan oinarritzen direla. Lehenengo hizkuntza era ezberdinetan erabil daiteke bigarren hizkuntzan izandako komunikazio zailtasunak gainditzeko. Hona hemen batzuk:

- Lehenengo hizkuntzaren hitzak maileguan hartu.
- Lehenengo hizkuntza bigarren hizkuntzara itzuli.
- Pasarte korapilatsuak lehenengo hizkuntzan adierazi eta ondoren bigarren hizkuntzara aldatu. Hizkuntzak txandakatu, alegia.

Hauek guztiak, neurrian, lagungarri suerta litezke, bereziki monitorea erabiltzeko baldintza egokiak daudenean. Baina demasian, benetako oztopo bihur daitezke komunikaziorako.

- **Gizarte-estrategiak**

Jabekuntza prozesua bultzatu nahi denean, funtsezkoa da hizkuntza-input ulergarri eta ugaria ziurtatzea, hori gabe prozesuak huts egiten baitu. Hona hemen iradokizun batzuk, adibide gisa, adierazi nahi dena irudikatzen:

1. Inputaren kantitatea ugaltzeko estrategiak:

Ikasle batek jatorrizko hiztunekin hitz egiteko inizatibak hartzen baditu, komunikazio-truke handiagoa izanik, besteengandik input gehiago jaso eta, horrenbestez, jabekuntza prozesua bizkortzeko aukera gehiago izango du.

1) Euskal giroaz (ikaslearentzako 2H-az, alegia) inguratu; 2) solaskideei mezu esplizitua helarazi euren artean euskaraz egin dezaten norbera aurrean egonda ere (“mesedez, nahi nuke zuek euskaraz egitea ni tartean nagoenean ere, oraindik ez dakit oso ondo hitz egiten baina zerbait ulertzen ez badut galdetuko dizuet”).

Beste estrategia batzuek mintzamenari zuzenean heltzea izan dezakete lehentasuna: 1) euskaraz egiteko norberak duen gogoia euskaraz eginez aditzera ematea: alegia, ekintzez erakustea norbere gogoia 2) eskaria zuzena egin euskaldunei (jatorrizko hiztunei) norberari (ikasleari) euskaraz (ikaslearentzako 2Han) egiteko (“nahi nuke zuekin euskaraz egin”).

Behin ikasleak hizkuntza-harremanaren barruan egotea lortuz gero, zenbat eta gehiago irautea izan liteke hurrengo helburua. Horretarako, honako hauek izan daitezke estrategia emankorrak: 1) tarteka komentario laburrak egitea, solasaldiaren hariari segitzen zaiola aditzera emateko, 2) ataka larrietatik ateratzeko esakune-komodinak erabiltzea (“ez dakit”, “noski”...)

2. Inputaren kalitatea hobetzeko estrategiak:

Beti dago elkarrizketetan ikasleak ulertzen ez duen kontu bat edo beste.

Hiru estrategia mota har ditzake ikasleak aurrera egiteko: 1) eskari esplizituak egin (“aizu mesedez! polikiago egin al dezakezu?”), 2) ulertu ez izana aditzera eman (“barkatu, zer esan duzu?”) eta 3) birformulazioa eginez baieztapena eskatu (“zer esan duzu, bihar etorriko zarela?”)

3. Komunikazioaren jariora babesteko estrategiak

Jabekuntzari laguntzeko duen modurik hoberena komunikazioaren jariora ez etetea da. Hau dela eta, komunikaziorako tartea, batetik, eta hizkuntzaz gogoeta egiteko (ikasteko) tartea, bestetik, ongi bereiztea, eta ez nahastea, ideia ona izaten da.

Hona hemen estrategia batzuk: 1) Komunikazio saio erreal baten erdian hizkuntza zalantzak sortzen zaizkigunean idatzi papertxo batean edo gorde gogoan, gero, beste une batean, hiztegian begiratzeko, horretaz pentsatzeko, ariketa batzuk egiteko, norbaiti galdetzeko, eta abar. 2) Zerbait irakurtzerakoan, lehendabizi ulertzeari begira egin irakurketa, eta agian bigarren irakurraldia egiterakoan, hizkuntza forma zehatzei erreparatu. 3) Idazterakoan, hitz jarioari bide askea eman adierazi beharrekoa idazteko, eta gero hura erreparatzerakoan formari begirako orrazketa egin.

Estrategia hauek guztiek funtsa bera dute, eta da: lehendabizi komunikazioa, eta bigarrenez hizkuntza-gogoeta. Bestela esanda: lehendabizi mezua, eta bigarrenez forma.

Horrenbestez, egun, ikerketek aski datu ematen digute ikuspegi bat eraikitzeko, non bigarren hizkuntzaren jabekuntza komunikazio errearen jardunarekin estuki lot daitekeen, lehen hizkuntzaren jabekuntza ematen den modu antzerakoan. Horren arabera, ingurutik jasotzen dugun hizkuntza informazioa bere kasa antolatzen da burmuinean, ahalegin kontzientea egin gabe, arreta mezua ulertzerantz bideratzen dugunean. Geure burmuinaren parte bat mezua deskodetzen (ulertzen) saiatzen den bitartean, beste parte bat kode horren funtzionamenduaz jabetzen da oharkabea. Hala, arreta mezuan dugun artean, burmuinaren isiltasunean, oharmentik urrun eta era intuitibo batez eskuratzen dugu hizkuntzaren logika (gramatikaltasuna). Esan genezake jaiotzetik bertatik ditugula neurona-zirkuitu egokiak hizkuntzaren erraiak ulertzeko.

Mezuak ulertuz garatzen dugu gramatika intuitiboa, eta gerora, hortik sortuko zaigu hizketarako jariora. Zirraren agerpenak eragingo du beti mekanismoa bizkortzea ala moteltzea.

Horren aldean, arrazoizko ikaskuntza sistematiko eta logikoa bigarren mailako garrantzia duen prozesua da. Norbere jariora ikuskatzeko, aztertze edota zuzentzeko balio dute ildo honetatik lortutako ezagutzek. Une egokian eta era

neurtuaz erabiliz gero, osagarri eta lagungarri zaio fakultate hau hizkuntzaz jabetzeko berezko ahalmenari. Baina, arrazoia beragatik, gehiegizko erabilera izan daiteke hitz-jarioaren blokatzearen eta desnaturalizazioaren iturri nagusietako bat.

Azkenik, ikusi dugu zein estrategia mota erabili ohi dituzten ikasleek bai hizkuntza zailtasunak gainditzeko, bai inputaren zenbatekoa eta nolakoa erregulatzeko. Estrategiak horiek, batzuetan, jabekuntza prozesua indartzen dute; beste batzuetan, ikaskuntza.

5.2.HIZKUNTZA INPUT ULERGARRIA: BI EGITASMO

Lan hau egiten hasi nintzenean eta hizkuntza jabekuntzari begirako teoriak irakurri nituenean, konturatu nintzen nire inguruan eta zehazki *EMUN lana euskalduntzeko kooperatiban* bazeudela bi egitasmo hizkuntza input ulergarriarekin lotutakoak. Bietan langile erdaldunekin lan egiten da eta lanean erabiltzen dituzten hizkuntza inputak ulertzeko laguntza ematen zaie euskara teknikarien aldetik. Horrela, gaztelaniazko hitzun horiek euskarazko lan dinamiketan parte hartzen hasten dira, euskarara hurbilduz eta euskararekiko kontzientziazkoa ere handituz. Nahiz eta biak helburu berdintsua izan bakoitzak badituenez bere ezaugarriak, biak bereizirik azalduko ditut:

5.2.1.KONPRENITZEN ekimena

Fagor Etxetresnetako Egosceta negozio-unitatean jarri zen martxan 2009an eta Amaia Lariz izan zen martxan jarri zuen eta oraindik ere egitasmoan diharduen EMUNeko euskara teknikaria.

Negozio horretarako Euskara Planaren helburuetako bat bileretako euskararen erabilera gehitzea zen eta hori lortzeko bideetako bat bileretako kideek gutxieneko euskararen ulermen maila lortzea zen. Hala, 2009an euskararen ulermena lantzea erabaki zen.

Egosceta negozioan hobekuntza taldeka lan egiten da. Hobekuntza taldeak fabrikazioko talde naturalak dira eta horietan fabrikazioko, kalitateko zein euskarazko helburuak lantzen dira. Hasiera batean horietako bat aukeratu zen ausaz proba pilotua egiteko. Ekimena zehatz-mehatz aurkeztu zitzaien eta ez zitzaie euskaraz berba egiteko eskatuko argitu zen. Erdal hitzun batzuk ekimenaren zehaztasunak ezagutzeko, lasaitu egin ziren, eta ekimena arazo

gabe onartu zuen taldeak. Hobekuntza taldean euskara ulertzen ez zuten 5 kideak atseden orduetan euskararen ulermena lantzeko prest azaldu ziren. Lehen beldurrak uxatuta, jarrera irekiagoa hartu zuten erdal hitzunek.

Hasierako helburua bilerako gai bat euskaraz ulertzeko gai izatea izan zen. Hala, hilero bileretan lantzen zen gai bat aukeratu eta gai hori azaltzean behin eta berriro erabiltzen ziren hitzak eta esamoldeak aztertzen zituzten (ehunekoak, hilabeteak, mezu ezkorra emateko esaldiak edo mezu baikorra ematekoak) areako gestoreak eta euskara teknikariak. Hitz eta esamolde horien ulermena lantzeko materiala sortu zuten eta taldeko kideekin horiek lantzeari ekin zioten.

Horrez gain, bileretan areako gestoreak euskaraz azaltzen zuen gaia idatziz ematen zieten euskaraz eta gaztelaniaz euskara ulertzen ez zuten kideei. Poliki-poliki (eta kideek euskararen ulermena handitu zuten heinean) gaztelaniazko testua kentzen hasi ziren; baina, euskarazko esamoldeen alboan gaztelaniazko ordainak jartzen zituzten.

Parametroen gaia euskaraz landu zen. Lehen urtean taldeko kideek positibotzat baloratu zuten ekimena eta ekimenean parte hartu zuten 5 kideek aitortu zuten gai zehatz horren eduki nagusia ulertzeko gaitasuna lortu zutela. Dena den, orokortasunez gain zehaztasunak ere ulertu nahi zituztela adierazi zuten. Beraz, hurrengo urtean horri ekin zioten.

Egun 9 hobekuntza taldeekin lantzen da ulermena eta guztira 10 kide dira laguntza hori behar dutenak. Kide horien ulermena handitzeaz gain, bileretako euskararen erabilera ere handitu egin da eta horixe da azken helburua. Gai bat euskaraz lantzetik gaien erdia euskaraz lantzeari ekin zaio momentu honetan.

Ekimen hau abiarazi zutenetik ondorioztatu ahal izan dute euskaraz egitea eta euskaraz ematea bezain garrantzitsua dela euskara ulertzeko prestasuna izatea, horrek ahalbidetzen baitu euskararen erabilera handitzea. Lankide euskaldunentzat ere oso positiboa izan da besteek ahalegin hori egiten ari direla ikustea eta jarrera aldaketa hori lantegian bizitzea.

Gaur egun bilerako gai zehatz horrez gain, eguneroko gai arruntak ulertzeko lanketak ere egiten dira (beti ere taldekideek hala adostuta): eguraldiaren iragarpena, telebistako programazioa, jantokiko menua eta abar. Eta lanketa horietarako lankide euskal hiztunen lankidetza bilatzen da, etxeko lanak eurekin batera egitera bultzatuz.

5.2.2. Etorkinek lanaren bidez euskara ikasi ekimena

Egitasmo honetan ere EMUN kooperatibak hartu zuen parte (BANAIZBAGARA kultur elkartearekin) 2011ko urte bukaeran etorkinekin eta familia euskaldunekin abian jarri zen plan pilotu batean.

Etorkin askok familia euskaldunetan egiten dute lan, batez ere, garbitzaile eta pertsona nagusien edo umeen zaintzaile gisa. Egoera hau abiapuntutzat hartuta, etxeko langileen eta familien arteko harremana euskalduntzeko aukera eskaini nahi izan zen proiektu horren bitartez.

Horretarako 5-10 familia edo pertsona euskaldun eta, aldi berean, 5-10 langile etorkin bilatu ziren eta parte hartu zuten bi aldeen egitekoa honako hau zen: kasu batzuetan familiaren eta langilearen arteko lan harremana euskarazkoa izatea hasiera-hasieratik eta beste kasu batzuetan gaztelaniazko harremana euskalduntzen hastea, nahiz eta langilearen hasierako euskara maila oso baxua izan. Horrek esan nahi zuen familietako kideek hasieratik pazientziaz eta borondate onez erabili behar zutela euskara. Hasieran, adibidez, agurrak eta hitz xume batzuk erabiliz eta, gero, lanari buruzko azalpen errazak emanez. Langilearen eta zaindutako pertsonaren arteko harreman soziala, pausoz pauso, euskarazkoa izatea zen helburu nagusia.

Helburu zehatzak honako hauek ziren:

- Etorkinak euskararen bidez lana aurkitzea.
- Familia euskaldunei pertsonen zaintza edo etxeko langileekiko harremanak euskaraz edukitzeko aukera ematea.
- Etorkinak euskara ikastea eta horren bidez lanerako eta gizarteratzeko aukera gehiago edukitzea.
- Lan munduaren euskalduntzearen barne bide berriak jorratzea (etxeko langileen kasuetan gaia ez familia eta langileen eskuetan bakarrik uztea).

Familiak eta langile interesdunak aurkitu zirenean (ohiko lan harremanetan bezala familiek hautatu zuten langilea), familia bakoitzaren diagnosi xumea egin zen elkarrizketen bidez eta ondoren formazioa eman zitzaien EMUNeko teknikarien bitartez. Esan beharra dago, etorkinei begira egin zela deialdia hasiera batean, baina denetik izan zuten taldean (Senagal eta Nikaragutatik etorri berriak, Donostian jaiotakoak, orain dela 30 urte Salamancatik

etorritakoak eta abar. Azken finean, etorkina izatea baino garrantzitsuagoa zen etxez etxeko lanetan aritzea (ikastaroko edukiak lan funtzioetan oinarritzeko, gehien bat).

Langileekin egindako saioetan (2 orduko 14 saio) bi eduki mota berezitu ziren:

- Euskarazko oinarrizko edukiak (euren laneko funtzioetan oinarrituta). Horretarako erabili zen metodologia hizkuntza inputaren garrantzian oinarritutakoa izan zen: paperik gabe landu ziren edukiak, simulazio eta errepikapen askorekin, jolasen eta kantuen bidez.
- Hizkuntza jarrerak eta motibazioa. Beraien hizkuntz ibilbidea, hizkuntza ohiturak aldaketa, hizkuntza aniztasuna=aberastasuna, euskaldunok nola jokutzen dugun gure hizkuntzarekin eta zergatik, sentimenduak, euskara ikasteko motibazioa (zer irabaziko genuke...) eta abar.

Euskarazko oinarrizko eduki horien eta hizkuntza jarreraren lanketaren artean loturak egiten saiatu ziren. Adibidez, hizkuntza ohituren aldaketak jardutean, euskara erabiltzen hasitakoan sor litezkeen blokeo egoeretatik irteteko baliabideak eskaini zitzaizkien ("barkatu, ez dut ulertu", "polikiago mesedez" eta abar).

Familiekin egindako saioak (2 orduko 5 saio) programatu ziren baina ezin izan ziren egin. Berez, honako gaiak lantzeko asmoa zegoen:

Alde batetik, euskara komunikaziorako tresna gisa langile horiekin nola erabili irakatsi: hasieratik laneko azalpenak euskaraz ematen saiatuz, mimika eta eskuak laguntza gisa erabiliz, edo, laneko azalpen zehatzak gaztelaniaz izanez gero, lan egunaren hasieran eta bukaeran langilearekin 15 minutu geratuz, lanaren inguruko azalpenak euskaraz errepikatuz. Beste alde batetik langileei nola hitz egin poliki, gauzak modu errazean nola azaldu, pazientzia nola ez galdu, noiz errepikatu ideiak euskaraz eta noiz pasatu gaztelaniara edo beste hizkuntza batera eta abar irakatsi zitzaien.

Gainera, euskaldunen hizkuntza jarrerei buruz jardun: jarrera horiek zer eragin duten ingurukoengan, zer transmititzen dugun...

Eta euren kezkak, zalantzak argitzeko gunea nahi zuen izan.

Lanean hasita, hilean behin bilera bat egin nahi izan zen familiekin, hizkuntzari lotutako aurrerapausoak, galderak eta zalantzak komentatzeko, baita egon litezkeen arazoak konpontzeko ere, baina lehen aipatu den bezala lanketa hori ezin izan zen egin.

Saioak langileekin bakarrik egin zirenez, proiektua hankamotz geratu zen. Dena dela, langile-ikasleak gustura aritu ziren saioetan eta emandako edukiak erabilgarriak izan zirela adierazi zuten. Dena dela, familien inplikazio handiagoa beharko litzateke proiektua borobiltzeko.

6. IKERKETAREN HIPOTESIAK

Elkarrizketatuko ditudan 8 langileetan arestian azaldutako teoria hauek diotena betetzen den ala ez konprobatu nahiko nuke edo behintzat zein mailataraino betetzen diren jakin. Beste era batera esateko, euskarazko dinamiketan arrakastaz funtzionatzen duten kasuetan motibazioa, ezagutzaren nahikotasun maila, jabeakuntza prozesua eta aldagai afektiboak errepikatu diren konprobatu eta besteren bat egon litekeen aztertu nahiko nuke. Lortu ez duten kasuetan ere gauza bera egingo nuke, alegia, faktore horiek ez direla behar beste errepikatu edo bete konprobatuko litzateke.

7. FAGOR ARRASATEKO EUSKARA PLANA

Metodologia atalean ikusiko duzueenez, lan honen helburuetara iristeko eta ondorio eta emaitzak atera ahal izateko, Fagor Arrasateko eta Fagor Taldeko langileei egin dizkiet elkarrizketak. Elkarrizketatu horiek lan egiten duten enpresak testuinguru historiko sozialean kokatu nahian, ondorengo orrialdeetan Fagor Arrasate enpresak euskararen normalizazioarekin izan duen harremanaren berri emango dut.

Lehenik eta behin Fagor Arrasateri buruzko datu batzuk eman nahi nituzke, Fagor Arrasate Kooperatiba Elkartearen 55 urteko ibilbide luzea duen kooperatiba da. Arrasaten jaio zen mugimendu kooperatibistaren aitzindarietako bat da. Gaur egun Euskal Herritik mundu zabalera begira ari den 500 langile baino gehiagoko Kooperatiba da. Lantegiak Arrasaten, Markinan, Donostian ditu eta orain dela hiru urte Txinako hego ekialdean kokatuta dagoen Kunshan hirian beste lantegi bat martxan jarri zuten.

Makina-erremintako sektorean kokatzen du bere jarduna: automozio eta etxetresna ekoizleentzako makinak egiten ditu. Beraien jarduera dela eta kualifikazio handiko langileak ditu (ingenariak, muntatzaileak eta abar).

Euskara ezagutzari dagokionez, %80 inguruk euskaraz daki. Ohikoa denez jende helduagoaren multzoan euskaraz alfabetatu gabeko langile asko dago. Gazteen artean aldiz, euskaldun alfabetatuak dira gehienak.

Geroago zehaztasun handiagoz ikusiko dugunez, euskararen normalizazioaren aldeko kezka Fagor Arrasaten ez da azken urteetako, aspalditik datorren kezka baizik. Gainera, lehenengo Fagor Taldeko kooperatibek euskararen berreskurapen eta normalizazioan izan duten papera azalduko dut. Azken batean Fagor Arrasateko euskara plana ez da ekintza isolatu bat, baizik eta testuinguru historiko sozial batean kokatzen den esperientzia bat. Beraz hurrengo puntuan Fagor taldearen eta euskararen arteko harreman historikoa azalduko dut eta ondorengoetan Fagor Arrasaten azken hamarkadan inplementatu den euskara planaren berri emango dut, izan dituen hiru faseak azalduz.

7.1.FAGOR TALDEA ETA EUSKARA

1955. urteko urriaren 20an bost gizonak Gasteizen enpresa bat erosi zuten. Garai hartako 400.000 pezeta (2.400 euro inguru) ordaindu zituzten. Beraien asmoa enpresa berri bat sortzea zen, bazkideez osatutako sozietate bat. Sozietate berriari sortzaileen abizenek osatzen zuten ULGOR (gaur egun Fagor Etxetresna elektrikoak) akronimoa izena eman zioten. Une hartan Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa izenez ezagutu izan dena lehenengo pausoak ematen hasi zen (Molina, 2005: 351; 2006:37).

Denbora gutxira, Arrasate eta bere inguruan industria kooperatiben hedapen bizkorra eman zen. 1957an Talleres Arrasate Kooperatiba (gaur egun Fagor Arrasate) Lan Ministerioan erregistratu zen, Arrasateko lehenengo kooperatiba bihurtuz (Irizar eta Kareaga, 2003: 22). Urte haietan ere Ulgorrek Arrasaten bertan pabilioi bat eraiki zuen eta Fagor Elektronika kooperatiba sortu zen. Urte gutxitan langile kopuruan hazkunde nabarmena izan zuten hasierako kooperatiba hauek. Esperientzia Kooperatiboaren hastapena izan zen honetan,

langileak oro har euskaldunak baziren ere, Kooperatiben sorrera bera, hizkuntzaren ikuspuntutik, erdalduna izan zen. 1950eko hamarkada hartan euskarak bizi zuen egoera ez zen batere pozgarria: prestigio falta, langileak euskal hiztunak baziren ere ez zeunden alfabetatuak eta horrek lana euskaraz egitea eragotzi egiten zuen, hizkuntzaren transmisio arazoak eta errepresio frankistak ezinezko egiten zuen euskararen aldeko aurrerapausoak ematea. Faktore horiek asko baldintzatu zuten langileen eguneroko dinamika hizkuntzaren aldetik. Hala ere, badirudi tailerretako hartu eman informalak euskarazkoak zirela. Aldiz, bulegoetako lanetan gaztelania zen nagusi (Intxausti eta Unanue, 2002: 40).

Hasierako urte haietan euskararen alde egin ziren ekintzen artean, hainbat langilek euskararen alde egindako eskaerak aipatu daitezke. Honela, Ulgor Kooperatiban 1963an euskara zabaldu, indartu eta laguntzeko eskaria egin zen lehen aldiz. Horretarako bazkide batek proposatu zuen obra sozialetara bideratutako fondoak horretarako erabiltzea. Eskaera ez bazen onartu ere, argi erakusten du hizkuntzarekiko kezka bazegoela pertsona batzuen artean. Horren erakusgarri dira baita ere ondorengo bi adibideak: 1973an memorian euskarak izandako tokia gutxi iruditu zitzaion bazkide bati eta hartutako akordioak euskaraz ere irakurtzea eskatu zuen. 1975ean hiru bazkideek hainbat eskaera egin zituzten euskara bultzatzera begira: batzarretan euskaraz egitea, postu batzuetarako euskara beharrezkoa izatea, kooperatibako estatutuak eta erregelamenduak bi hizkuntzetan egotea eta kooperatiban sartzeko bazkide berriek euskara jakitea. Fagor Arrasatera etorrira, bertan ere euskararen inguruko kezka azaltzen zuten langileak zeuden. 1976ko Kontseilu Errektoreko aktetan enpresako harremanetan euskara erabiltzeko proposamena agertzen da eta neurri batzuk ere proposatzen dira: bozgorailuetako deiak, ohar-paneletako deialdiak, barne-komunikaziorako idazkiak eta Kontseilu Sozialeko bilerak euskaraz izatea eta baita enpresako lanpostu klabeak euskara zekitenak betetzea (Irizar eta Kareaga, 2003: 187).

Fagor Arrasateko Batzar Nagusian ere euskarari buruzko kezka agertu zen. (Nikanor Mujika bazkideak aurkeztutako idatzia 1976ko martxoaren 16an egindako Batzar Orokorrean).

Aipatu ditudan langileen ekimen horiek Arrasaten 1960ko hamarkadan sortu eta hurrengo urteetan indartuko zen euskararen aldeko giroaren fruitu ziren. Garai haietan herritarrek hainbat ekimen antolatu zituzten euskara bultzatzeko eta mugimendu hau bertako lantegietan ere islatu zen.

Mugimendu honen barruan kokatu daitezke lantegietako euskara planen sorburua izango ziren gaueskolak.

Garai haietan Arrasate herrian klandestinitatean euskara eskolak ematen ziren. 1976-77. ikasturtean 1.090 ikasle joan ziren Leintz bailarako gau-eskoletara eta 78 irakasle zeuden. Bertan sortu zen euskara eskolak kooperatibetara eramateko ideia.

Era honetan ezagutzan oinarritutako lehenengo euskara planak martxan jarri ziren kooperatibetan. Ularco taldeak (1975ean sortu zen taldea) Ularco industria-gunean zuen jatorria . Ondoren 1986. urtean Fagor Taldea izena hartuko zuen. Taldea hainbat kooperatibaz osatuta zegoen: Ulgor (Fagor Etxetresna Elektrikoak), Arrasate (Fagor Arrasate), Copreci, Fagor Elektronika, Fagor Ederlan, Fagor Industrial, Fagor Klima, Fagor Automation) eta egia esan protagonismo handia hartu zuen euskara plan aitzindari hauetan.

Ulgorrek prozesua abian jarri zuen 1976. urtean langile talde batek Kontseilu Sozialean (kooperatibako aholkularitza organoa) euskara plangintza bat egitea proposatu zuenean. Honen ondorioz kooperatiban lehenengo euskara komitea sortu zen. Euskararen aldeko ekintzaile hauentzat, lotura zuzena zuten kooperatibismoaren printzipioak eta euskararen aldeko konpromisoak.

Euskara komiteak inkesta bat pasa zuen eta emaitzen arabera langile asko euskara ikasteko prest zeuden eta langile kopuru handia prest zegoen irakasle lanak egiteko prestakuntza egoki bat jaso ondoren. Ulgorren sortutako planteamendu hau Ularcora bideratu zen eta 1977ko otsailean Ularcoko kontseilu Nagusiak hainbat ekintza bultzatzea onartu zuen: euskara eskolak emango zituzten langile-irakasleen formazioa, euskara batzordeak sortzea, arduradunak izendatzea eta neurri instituzionalak finkatzea.

Honela bada, prest zeuden langileen artean batzuk aukeratu eta euskara irakasle lanetarako prestakuntza jasotzea izan zen lehenengo urratsa. Ondoren, Ularco talde osoan eskolak ematen hasi ziren eta 40 taldetan banatutako 605 lagunek jaso zituzten euskara eskolak. Ikastaroak bi urtetan antolatu ziren. 8 hilabeteko ikastaroak ziren eta astean 4 egunetan ematen

ziren, egunean ordu betez. Eskolak lan orduz kanpo ematen ziren, lanean hasi aurretik eta bukatu eta gero.

Ikastaro trinkoek ere izan zuten tokia lehenengo plangintza honetan.1980. urtean udako ikastaro trinkoak antolatu ziren urtean zehar klaseetara joan ezin zen jendearen interesari erantzuteko. Uda hartan 20 ikasle joan ziren Copreci kooperatibak zuen txaletera ikastaro trinkoetara. Hurrengo urtean 41 izango ziren ikastaro trinkoetara joandakoak.

Aipatzekoa da ikastaro trinko haietara joandakoen artean kooperatibetako zuzendaritzako partaideak zeudela. Kooperatibetan zegoen euskararen aldeko mugimenduak lortu zuen zuzendaritza organoak ohartzea gaiaren garrantziaz eta organoetako kide batzuek ere konpromisoak hartu zituzten.

Euskara eskolak antolatzeko eta garapen egokia izateko sortu ziren euskara komiteak kooperatiba ezberdinetan (Arrasate, Copreci, Fagor Ederlan, Fagor Elektronika, Fagor Industrial).

Beste eginkizun batzuk ere hartu zituzten euskara komite hauek, hala nola hitzaldiak antolatu, film emanaldiak, Euskalan aldizkaria eta abar. Euskara komite hauetako partaideak kooperatiban funtzio ezberdinak betetzen zituzten langileak ziren: euskara eskoletako irakasleak, Kontseilu Sozialeko eta pertsonal departamentuko ordezkariak eta kasu batzuetan kooperatibako euskara teknikaria.

Euskara komite hauen ordezkariekin Talde osoko ikuspegia izango zuen Ularcoko komite zentrala eratu zen. Komite zentral honek Kontseilu Orokorrari ekimenen berri ematen zion eta beste erakunde eta instituzioekin harremanak izaten zituen. Koordinazio orokorrerako arduradun bat zuen komite zentral honek eta bere eginkizunen artean honakoak zeuden: irakasleei klaseak ematea, ikastaro trinkoak antolatzea, koordinatzaileen bilerak deitu eta zuzentzea, txostenak idaztea, enpresa hiztegiaren ardura eta abar.

1979an ordura arte egindako lanaren balorazioa ez zen oso baikorra izan. Hainbat hutsune detektatu ziren, hala nola ikastaroen jarraipen eskasa, komiteetako bilerak lan orduz kanpo zirela eta asistentzia urria, lanpostu batzuetan euskara jakitea beharrezkoa bazen ere, ez zen errealitatean gauzatzen, langileen kontzientzia hartzearekin lotutako hutsuneak (bilerak oraindik gaztelaniaz, lantegiko arazoez hitz egiterakoan euskararik ez zen erabiltzen) eta abar.

Balorazioa egin ostean, indarrak berriz hartuta, plangintzarekin jarraitu zen. Lanpostuetarako euskara ezagutzari buruzko irizpide berriak jartzea erabaki zuen Ularcoko Kontseilu Nagusiak eta hurrengo urteetarako helburuak finkatu ziren.

Euskararen aldeko mugimendu hau martxan zegoenean, hainbat faktorek eragin zuten plangintzen beherakada nabarmena. Alde batetik, mundu mailako krisi ekonomikoa etorri zen. Kooperatibek krisiak eragindako egoera berriari moldatu behar izan zuten, eta euskararen plangintza barruan antolatutako gauza asko bertan behera utzi behar izan ziren krisiak eragindako ondorioengatik: liberatuta zeuden teknikarien lanpostuak desagertu ziren, aldaketak gertatu ziren lanpostuetan eta zeharkako lanpostuetan ari zirenak zuzeneko lanpostuetara pasatu behar izan zuten eta erreleboak sortu ziren euskara eskolak asko baldintzatuz.

Egoera ekonomikoaz gain, egoera soziopolitikoak ere faktore erabakigarria izan zen. Franko hil ondorengo hasierako urteetako ilusioa agortzen joan zen eta pentsamolde aldaketa bat ere eman zen gizartean, egoera idealizatua alde batera utzi eta errealtatean kokatu baitzen jendea. Era berean, eskoletan ikasten ari zen jendearen nekea azaleratu zen, eskolen metodologia ez baitzegoen oso landua eta aurrerapausoak nekez ikusten baitziren. Plangintza aitzindari hauek ezagutzara begira egindakoak ziren heinean, aipatutako azken arazo horiek eragin nabarmena izan zuten plangintzen beherakadan.

Euskal gizartearen aldaketa hori kooperatibetan ere islatu zen. Arrazoi nagusi horrekin batera badira beste batzuk: euskara irakasteko erabilitako sistema eta, bestalde, krisiaren ondorioz, Ulgor eta Fagor mailan euskara teknikari postuak galtzea. Euskarak eta euskara ikasten ari ziren bazkideak bultzatzeko indarrak eta kontzientziatze-kanpainak behera egitea eragin zuen horrek.” (Intxausti eta Unanue, 2002: 53-54).

Honen guztiaren ondorioz, euskara irakasle gisa ibili ziren langileek irakasle lanak utzi zituzten eta hurrengo urteetan euskara eskolak HABE eta AEK bezalako erakundeen esku geratu ziren. Ikasle kopurua dezente jaitsi zen arren, kooperatibek jarraitu zuten laguntza ekonomikoak ematen eta gelak erabiltzeko aukera ematen.

Euskara plan hauen beherakada eman bazen ere, horrek ez du esan nahi Fagor Taldeko kooperatibek guztiz baztertu zutenik. Egoera berrian Ularcok euskara

planei buruzko helburua berriz definitu zuen, garai hartan hartutako erabaki batzuk praktikara eramanez ez ziren arren. Hona hemen Ularcok definitutakoa:

ULARCOk enpresako harremanak euskalduntzeko erabakia mantendu eta berresten du, horrela bere funtzio soziala garatuz eta Euskal Herriaren sakontasuneko helburuarekin identifikatuz. Era honetan, ULARCOk onartu egiten ditu helburu honek bere baitan sortzen joango den sormenari buruzko etengabeko erronka eta tentsioak, gaur eguneko gure gizartearen ezaugarri diren diglosi egoeraren eta borroka linguistiko isla gisa. (Intxausti eta Unanue, 2002: 55).

Urte batzuetako nolabaiteko hutsunearen ondoren, 1980. hamarkada erdialdera, Arrasate herrian sortutako AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) elkarteak bultzatuta, berriz ere enpresetan euskararen aldeko ekimenak sortu ziren. AEDtik sortutako Euskalan taldea sortu zen eta euskara batzordeak eratzeko proposamena bidali zuten herriko hainbat enpresetara. Mugimendua berriz ere gorpuztuz joan zen eta 1990. hamarkada hasieran hainbat ekimen garatu ziren Fagor Taldeko kooperatibetan (Euskara batzordeak sortzea, Geurean aldizkaria eta euskararen aldeko ekimenak antolatzeko diru laguntzak).

Urte horietan egindako lana da gaur egun martxan dauden euskara planen hazia. Aurreko euskara plangintzen beherakadaren ondorioetatik ikasi eta berriz ere hutsune berberak eman ez zitezten oinarri batzuk jarri ziren. Horretarako planak bakarrik ezagutzara begira egon beharrean, erabilerara begira egon behar zutela ondorioztatu zen, honela euskaldunen hizkuntza-ohiturak kontuan hartzen ziren eta berauek aldatzea helburu garrantzitsua zen. Horrek ez du esan nahi beste faktoreak alde batera utzi behar zirenik. Ezagutza nahikoa lortzeko eta motibazioa etengabe lantzeko ekintzak egingo ziren. Era berean ideia berri bat sortu zen: instituzionalizazioa. Ideia honekin adierazi nahi zen hizkuntza aniztasuna enpresak berak kudeatu beharreko arlo bat gehiago dela, errentagarritasuna, kalitatea eta segurtasuna bezala. Baina plangintzaren iparra betiere erabilera bultzatzea izango zen. Ideia hau euskara plangintza berrien izenean ere islatu zen: euskara erabilera planak.

Bestalde, krisi egoerak ziklikoak izan ohi direnez, etor zitezkeen krisi berrien ondorioz euskara plan berriak bertan behera ez gelditzeko, kooperatiben

irabazien zati batetik elikatuko zen fondo bat osatu zen. Fondo hau sortzerakoan Fagor Taldeak bere kooperatibetan euskararen normalizazioaren izaera estrategikoa berresten zuten, prozesu luzea izango zela onartuz eta proiektuaren etorkizuna ziurtatzeko neurriak hartuz.

Era honetan, 1998. urtean Fagor Taldeak euskara planak egiteko hitzarmena sinatu zuen Emun kooperatibarekin. Hitzarmenaren helburua Fagor Taldea osatzen zuten kooperatibetan euskararen erabilera eguneroko komunikazio hizkuntza izateko planifikazioa egin eta ezartzea. Hitzarmena sinatzerakoan Fagorreko lehendakaria zen Juan Jose Ansoategik lau arrazoi aipatu zituen Fagorrek konpromiso hau hartzeko: kooperatibek Euskal Herriarekiko duten konpromiso eta filosofiarekin bat zetorrela hitzarmena, kooperatibetan sartzen diren bazkide berriek euskaraz aritzeko gaitasuna dutela, euskara batzordeetatik bideratutako eskaera sozial zabala zegoela eta bailaran euskararen normalizazioa lortzeko egiten ari ziren beste ekimen batzuekin lotzen zela (Euskalan, euskarazko hedabideak, euskara elkarteak,..).

Urte haietan hasi eta gaur egunera arte Fagor Taldeko kooperatibetan garatzen ari diren euskara planek, desberdintasunak desberdintasun, ezaugarri orokor batzuk dituzte eta berauek aipatuko ditut modu laburrean bada ere.

Alde batetik helburuak erabilerara begira ezartzen dira. Norabide orokorra honela azaldu daiteke: euskaraz lan egin nahi duen langileak aukera guztiak bermatuta edukitzeaz gain, aukera horiek aprobetxatzeko sustatze lana egitea. Beraz, euskara planeko gainerako arloak, ezagutza, motibazioa eta instituzionalizazioa edo erakundetzea, erabileraren mesedetan antolatzen dira.

Ezagutzaren kasuan euskara eskolez gain, langilearen zereginetan garrantzia berezia duten lanpostuak identifikatu eta euskara ezagutza mailak ezarri dira berauetarako eta laneko terminologia ezagutu eta erabiltzera begirako ekintzak antolatzen dira.

Motibazioari dagokionez, gero eta garrantzia handiagoa hartu du urteen joan etorrian. Langileek gaztelania erabiltzera bultzatzen duten barne eta kanpo faktoreak indartsuak dira eta euskararen erabileran eragina dute. Horregatik

langileen motibazioan eragitea ezinbestekoa da, hiztun mota bakoitzaren ezaugarrietara moldatuko diren motibazio ekintzak gauzatuz. Honela ekimen batzuk euskaldun osoentzako bideratzen dira, hizkuntza koherentzia lantzerantz begira; beste ekimen batzuk erabilerara eta neurri apalago batean hizkuntza koherentziara; azkenik, euskara ez dakitenei begirako ekintzak ere antolatzen dira.

Instituzionalizazioaren arloari begira jarrita, lehen aipatu dut zein den hitz honen atzean dagoen ideia nagusia: euskara plana enpresak berak kudeatzea, enpresarentzat garrantzitsuak diren beste arlo batzuk bezala. Azken batean, euskara plana ezin da enpresaren periferian kokatutako arlo bat izan, atzera ala aurrera egingo duena langile kopuru baten nahiaren menpe. Arlo honetan kokatu daitezke azken urteetan prozeduren edota arauen bidez araututako hainbat alderdi: komunikazioa, irudia, lan tresnak, lan formazioa eta kontratazioa.

Horiek dira 1990eko hamarkada bukaeran Fagor Taldeko kooperatibetan martxan jarritako euskara planen ezaugarri nagusienak. Enpresa desberdinez ari garen neurrian, beraien arteko desberdintasunak egon badaude, euskara planak enpresa bakoitzaren egoerara egokitu behar baitira. Baina desberdintasun horiek hein handi batean erritmoari dagozkionak dira. Kooperatiba batzuek aurrerapausoak lehenago egin izan dituzte eta beste batzuek geroago. Langileei egindako elkarrizketak horietako batean gauzatu zenez, Fagor Arrasaten alegia, ondorengo orrialdeetan kooperatiba horretan azken hamarkadan martxan egon den euskara planari begira jarriko dut begirada. Horretarako E. Apaolazak eta J. Alustizak idatzitako “Ez da eremurik haizea sartzen ez denik” (2005) artikuluan zehaztutako hiru faseetan banatuko dut azalpena.

7.2.HEGO HAIZEA FAGOR ARRASATEN (1999-2002)

Fagor Arrasateko euskara planaren abiatze fasea 1999an martxan hasitako euskara planarekin hasten bada ere, fase hau ez zen hutsetik abiatu, aurreko urteetan Fagor Arrasaten bertan hainbat ekimen egin baitziren. Nolabait

adierazteko gaur eguneko euskara planaren aurre-historiari buruz ari garela esan genezake. Lehenago aipatu dudan moduan, 1990eko hamarkadan Euskalan elkarteak Arrasateko enpresetan egindako sustapen lanen ondorioz, hainbat enpresetan euskara batzordeak sortu ziren.

Fagor Arrasate horietako bat izan zen. Hainbat euskaltzale elkartu eta sortu zuten Fagor Arrasateko euskara batzordea. Kide batzuk Kontseilu Sozialeko kide ere bazirenez, hainbat gauza euskaraz egiten hasi ziren: aktak euskaraz jaso, gehien erabiltzen ziren inprimakiak (lan-bonoak, akats-orriak) euskaratu. Belaunaldi berri honek egindako ahaleginak aurreko atalean aipatu ditudan aurreko belaunaldien ahaleginekin lotu daitezke, Fagor Arrasaten beti egon baita euskararen lekukoa eramateko prest zegoen langilerik.

1997 urte hasieran euskara batzordeak hainbat ekintza planteatu zituen urtean zehar egiteko.

Beste batzuen artean langileek zuten euskara maila jakiteko galdetegi bat egin, lanpostu bakoitzak behar zuen euskara maila zehaztu (Euskalan-en esku), euskaltegian izena emango zuten 5 bazkide bilatu, dokumentu erabilienak euskaratu, euskarazko software lizentziak eta hiztegiak erosi, eta abar.

Honenbestez gaur egun martxan dagoen euskara planaren abiatze fasera heldu garela esan dezaket. Euskararen aldeko ekimenak gero eta ekintza gehiago zituen eta dedikazio handiagoa eskatzen zuen. 1998ko hasieran Fagor Taldeko Lehendakarien Batzordean sortutako euskararen erabilera normalizatzeko planak egiteko proposamena etorri zen eta EMUN Koop. E.-rekin sinatutako hitzarmena. Maiatzean Fagor Arrasaterentzat euskara plan zehatz bat diseinatzea eta martxan jartzea onartu zen. Era honetan, diagnostiko bat egin zen eta diagnostiko horretan oinarritutako euskara plana 1999ko martxoan Kontseilu Errektoreari aurkeztu zitzaion. Ondoren, Kontseilu Sozialari eta Zuzendaritzari aurkeztu eta gero, 1999ko maiatzean euskara planari ekin zitzaion.

Lehenengo plan hau proiektu pilotu moduan planteatu zen eta estanpazioko negozioa eta zerbitzu orokorretako departamentuak hartu ziren eragin esparru moduan, baina ez enpresa guztia.

Gauzak horrela, abiatze fase honetan helburuak departamentuka jarri ziren. Ardatz nagusia erabilera izanda, ahozko eta idatzizko helburuak landu ziren. Enpresako departamentu bakoitzean zegoen ezagutza aztertu eta beharrak

identifikatuta formazio ekintza batzuk ere planteatu ziren. Horretaz gain, departamentu guztietan, prestutasuna agertu zuten pertsonekin erabilera taldeak sortu ziren.

Erabilera talde hauen bidez erabilera helburuak landu ziren eta baita motibazioa bultzatu ere. Era berean talde hauetan oinarrizko formazioa ere jaso zuten langile euskaltzaleek, beraien lana euskaraz egiteko lagungarria izan zena (Apaolaza, eta Alustiza, 2005).

Honela, mugimendu nahiko handia sortu zen enpresan euskara planaren inguruan. Erabilera taldeetako bileretara 130 pertsonatik gora joaten zen eta langile hauek euskara gehiago erabiltzeko konpromiso pertsonalak hartu zituzten, bai ahozkoan eta baita idatziz sortzen zituzten dokumentuetan (oharrak, e-mailak, dokumentu laburrak, ...).

E. Apaolaza eta J. Alustizaren artikuluan esaten denez, euskara planaren lehenengo pauso hauek behetik gorako bide bat jarraitzen zuten, hau da, langileen erabaki eta jardunaren bidez euskararen erabilera handitu egin zen enpresan. Lorpen hau euskaltzaleei zegokien, enpresak ez baitzuen gestio erabakirik edota hizkuntza politikarik hartu. Beraz, gaur egungo euskara plana sortzea enpresako langileen eskaria izan zen eta ez kanpotik edota goi organoetatik eratorritako erabaki bat.

Era berean, euskara planaren abiatze fase honetan ere langile horien ekimenak izan zuen garrantzia handia. Are gehiago enpresaren aldetik ez zegoenean inolako erabakirik euskararen erabilera handituko zuten neurrien inguruan. Horrek eragozpen eta oztopoak sortzen zituen, noski, batez ere norberaren eragin esparrutik departamentu guztikora, departamentu artekora edota enpresa guztikora pasatzerakoan.

Beraz hasierako fase honetan euskara planaren eragina eremu pertsonalean oinarritu zen, Euskara planak eragina izan zuen bertan parte hartzea erabaki zuten langileengan. Beraien eskariz sortu eta lehenengo pausoak eta lorpenak euren ekimenez lortu ziren. Euskaldunen artean euskararen aldeko giroa onerako berotu zen. Horregatik guztiagatik garai honi "hego haizearen garaia" deitu izan zitzaion. Jakina den moduan hego haizea behetik gora dator eta beroagoa izan ohi da.

Garai honetako lorpen nagusien artean aipatzekoa da ahozko erabilerak lortutako igoera handia. Egindako neurketen arabera %21etik %31ra pasa zen

erabilera. Horretaz gain ezagutzen ere igoera eman zen %68tik %73ra pasatuz. Azkenik, motibazioari dagokionez, fase honetan euskaldun askok euskararen aldeko kontzientzia hartzeko balio izan zuen.

Lehen aipatutako arrazoiengatik, euskara planaren gabeziak euskara enpresaren ohiko gestioaren barnean ez egoteak sortutakoak ziren. Langileek hartutako helburu pertsonaletan bakarrik lortzen zen eragitea. Enpresaren gestio sisteman euskararen erabileraren alde egingo zuten neurriak hartzeko nahiko indar ote zegoen eta zeregin batzuk euskaraz egitera derrigortzea zer neurritaraino egin zitekeen ez zegoen argi. Azken kezka honek garamatza gaur egun euskara planaren ibilbidearen hurrengo fasera.

7.3. IPAR HAIZEA FAGOR ARRASATEN (2002-2004)

Euskara planaren lehenengo hiru urteak amaitu eta gero, beste hiru urterako plana martxan jarri zen eta oraingoan aurreko fasean euskara planetik kanpo gelditutako negozioetan ere ezarri zen.

Honela, 2002tik aurrera siderurgiako eta transferentziako negozioak ere barne hartu zituen euskara planak eta baita ere Donostian kokatutako lantegia ere.

Fase honetan erabilera helburu batzuk erabilera taldeekin lantzen jarraitu bazen ere, beste batzuk enpresako arduradunekin adostu ziren eta arduradunen helburuen artean kokatu ziren. Era honetan euskara planak lehenengo pausoak egin zituen enpresaren gestio sisteman txertatzeko.

Honela, pertsonal departamentuaren esku gelditu ziren kontratazioari eta formazioaren inguruko helburuak, informatika departamentuak programetan hizkuntza aukera sartzekoari buruzkoen ardura hartu zuen eta gerentzia komunikazio, gestio eta arduradunen euskalduntzearekin lotutako helburuez arduratu zen.

Aurreko fasean ikusitako behetik gorako bideak zituen gabeziak aztertu eta gero, bigarren fase honetan euskara batzordea jabetu zen euskara plana instituzionalizatu egin beharra zegoela. Ezin zuela langile talde baten eragin eta bultzadaren esku bakarrik gelditu. Euskara plana enpresan txertatu egin behar zen enpresaren periferian kokatutako zerbait ez izateko. Horretarako kooperatibaren ohiko gestioa erabili behar zen eta horrek enpresako gestio erremintak erabiltzea (gestio plana, plan estrategikoa,..) zekarren.

Horrela, 2002an Euskara Batzordeak Zuzendaritza Batzordeari proposatu zion euskararen normalizaziorako planaren helburu batzuk departamentu bakoitzeko gestio planean sartzea.

Proposamena onartu egin zen eta euskara planaren helburuak enpresako arduradun naturalen zeregina ere izatera pasatu zen. Honela, helburuen inguruko azalpenak Kontseilu Errektoreak zein gerentziak eskatzen ditu, euskaren normalizazio helburuak enpresako beste edozein helbururen mailan zeuden (Irizar eta Kareaga, 2003: 322).

Instituzionalizazio prozesu honek hainbat abantaila zituen. Honela, euskara planean ezarritako helburuak enpresako beste helburuek (produkziokoak, komertzialak eta abar) zituzten tratamendu bera izan zuten. Babes eta ziurtasun handiagoa lortu zuen euskara planak, borondatearen menpe erabilera taldeetan hartutako helburuak bakarrik gelditzen zirelako, baina gestio sisteman jarritako helburuak bete egin behar ziren. Azkenik, koordinaziorako erraztasun handiagoa lortu zen, enpresako erabaki eta koordinazio organoak euskara planaren mesedetan erabiltzea ahalbidetu baitzen.

Horretaz gain, euskararen erabilera eta ezagutza arautzeko lanak ere egin ziren. Horretarako lehenik eta behin euskara planaren norabidea zehaztu beharra zegoen. Horren emaitza izan zen langile bakoitzak nahi zuen hizkuntza ofizialean (euskara ala gaztelania) lan egiteko aukera bermatu behar zela. Helburua finkatu ondoren, enpresaren gestio sistema barruan kokatutako prozeduren baitan euskararen erabilerarako funtsezkoak ziren arloak arautu ziren. Helburua, betiere, euskaraz lan egin nahi zuen langile orok euskaraz lan egiteko aukera hori bermatze aldera joatea zen.

Horretarako hainbat arlo arautu ziren fase honetan: formazio eta sentsibilizazioa, lan formazioa euskaraz jasotzeko aukera zabaltzeko; inbertsioak, erositako hornigaietan hizkuntza aukera bermatzeko; lan tresna informatikoak, aplikazioak euskaraz ere erabili ahal izateko; komunikazioa, enpresako jakinarazpen orokorrak euskaldunek euskaraz irakurtzeko aukera izateko; eta produktuari dagokionez, kontuan hartu behar da bezero gehienak Euskal Herritik kanpokoak direla, baina hala ere Euskal Herrirako eskaintzan euskarazko makinak erosteko aukera eskaini izan da eta bezero batzuek eskaintza hori aprobetxatu izan dute, hala nola Fagor Etxetresnak, Estampaciones Bizkaiak eta Durangoko tailer txiki batek.

Poliki-poliki euskaraz lan egiteko aukerak handitu egin ziren. Kasu honetan, aurreko hego haizearen kontrako norabidea hartu zuen euskara planak neurri batean. Goitik beherako bidea egiten zuenez eta giro hotzago baten barnean kokatzen zenez, “ipar haizearen garaia” deitu izan zaio. Giroa hotzagoa zen erabilera taldeetan hasieratik ibilitako jendearen zeregin asko enpresaren egituren baitan sartu zirelako eta neurri batean langileen parte hartzea euskara planean urritu egin zelako. (Apaolaza eta Alustiza 2005: 80).

Garai honetako instituzionalizazio prozesuaren barruan kokatu dezakegu Batzar Nagusia euskaraz egiteko Kontseilu Errektoreak hartutako erabakia. Aurreko urteetan Batzar Nagusian atal batzuk euskaraz jorratzen ziren, baina Batzar Nagusia batez ere gaztelaniaz egiten zen. Euskara planean enpresako organoen inplikazioaren erakusgarri, 2002tik aurrera Fagor Arrasateko Batzar Nagusia euskaraz egiten da eta euskara ulertzen ez duten langileentzako aldi bereko itzulpen zerbitzua jartzen da.

Fase honetan lortutakoen artean aipatu behar dugu, garrantzia berezia duelako, euskara planaren misio edo norabide garbi bat zehaztu zela. Misio horrek eragina izango zuen hartutako erabaki askotan eta urtez urte jarritako helburuetan. Era berean fase honetan hartutako erabilera helburuek pisu berezia hartu zuten, hala nola, programa informatikoak euskaraz ere erabiltzeko lanak egitea eta hizkuntzen arteko aukera egin ahal izatea bermatu behar zuten lanpostuetako pertsonak euskaldunak izateko euskalduntze selektiboak bideratzea. Fase honetan ere ahozko erabilerak gora egin zuen, %35etik %45era pasa zen.

7.4. BADATOR TRAGANARRUA (2005ETIK AURRERA)

Ikusi dugun moduan, aurreko fasean euskara planaren instituzionalizazio lanak berarekin ekarri zuen langileen parte hartzearen maila txikiago bat. Joera hori zuzendu nahian, aurreko bi faseetako gauzarik onenak integratu nahi izan dira azken urte hauetan Fagor Arrasateko euskara planean.

Horregatik goranzko eta beheranzko ibilbideak kontuan hartu izan dira, helburuak eta egitasmoak planteatzerakoan. Hori dela eta, fase honi traganarrua deitu izan zaio (Apaolaza eta Alustiza 2005:81). Traganarruak itsasoan sortzen diren haize korronteak dira, tragarroi eta tornadoak ere deitzen

dira. Traganarru hauen ezaugarri bat da kanpotik haize hotza dakartela goitik behera eta barrutik haize beroa igotzen dute behetik gora. Traganarruaren metafora honek argi erakusten du azken urteetan Fagor Arrasateko euskara planaren baitan iparra izan den norabidea, instituzionalizazio lanak egin baina langileen parte hartzearen indarra albo batera utzi gabe. Neurri batean aurreko bi faseetako bakoitzak zituen gabeziak beste fasean garatutakoekin estali zitezkeela oharturik, fase berri honetan praktika, gestio eta abarrei eutsi zitzaien eta langileen parte hartzea berriz ere indartuko zuten egitasmo batzuk martxan jarri ziren. Akuilu taldeak azken hauetako egitasmo bat izan ziren.

Euskara planarentzat eragile euskaldunen garrantzia berebizikoa da. Eta eragile euskaldunei buruz hitz egiterakoan motibazioaz hitz egitea ezinbestekoa bilakatzen da. Hori dela eta, fase honetan motibazioak sekulako garrantzia hartu zuen. Motibazio horren baitan kokatzen dira Fagor Arrasaten euskararen aldeko diskurtso indartsuak eta portaeran eragiteko sentsibilizazio ekintzak eta formazioak. Honekin lortu nahi izan dena zera da, euskararen eskaria bizia eta ausarta izatea, alde batetik, eta bestetik, langileek euskaraz lan egin nahi izanez gero, beraien egunerokotasunean oztopo material edo pertsonalik ez edukitzea. Bi helburu hauetan gauzatzen dira aurreko ataletan ikusitako behetik gorako eta goitik beherako ibilbideak.

Enpresa egiturari hizkuntza aukera bermatzea dagokion moduan, ezinbestekoa da langile euskaltzaleen parte hartzea. Alde batetik beraiek euskaldun oso moduan funtzionatu ahal izango dutelako enpresak lana euskaraz egiteko aukera bermatzen dien heinean. Beste alde batetik, beraien eragiletzari esker, euskararen erabilera areagotzeko eskaria handitu egingo delako enpresa barruan, horrek enpresaren euskararen alde hartutako erabakiei pisu soziala emango dielako, eta neurri berriak eta sendoagoak hartzera ere bultzatu baitezake eragiletza horrek. Era honetan zirkuitu bat izango balitz moduan atzeraelikatze prozesu bat ematen da, euskararen normalizaziora daraman prozesua hain zuzen ere.

Fase honetan eragindako arlo bat komunikazioarena izan da. 2005. urtean euskara batzordeak enpresaren jakinarazpen orokorrak langile guztiei bi hizkuntzetan bidali beharrean bi komunikazio kanal sortzea proposatu zion Kontseilu Errektoreari. Helburua langile euskaldunei komunikazioak euskara hutsean bidaltzea zen. Horretarako langile guztien ezagutza jasota, e-mailak

jasotzen zituzten langile taldeak berregin ziren eta euskaldunen taldeak sortu ziren. Era horretan, enpresako jakinarazpen orokorrak (Kontseilu Errektoreak bidalitakoak, Gerentziak bidalitakoak, negozioetako zuzendaritzek bidalitakoak) euskaldunei euskaraz bakarrik eta gainontzekoei euskaraz eta gaztelaniaz bidaltzen zaizkie. Azken urte hauetan ere lan formazioko ikastaroak euskaraz emateko hainbat lan egin dira.

Horretarako formazio ekintzak antolatzerakoan, taldeak egiteko irizpide bat hizkuntza izan da, eta euskaldunen multzokoek ikastaroak euskaraz jaso ahal izan dituzte kasu batzuetan. Emaitzak oraindik apalak izan dira, askotan oztopoak formazioa ematearen ardura duten kanpo hornitzaileek jarri izan baitituzte. Hala ere datozen urteetan lan formazioa euskaraz jasotzeko aukera handitu egingo dela uste da.

Pertsonal politikei dagokionez, Fagor Arrasaten lanpostuek hizkuntza eskakizun bat zehaztuta dute eta kontratazio eta promozioetan bete beharreko eskakizuna da. Arlo honek berebiziko garrantzia hartzen du, ardura postuetan dauden langileen ezagutza mailak baldintza baitezake euskaraz lan egin duten langileen eskubidea.

Fase honetan landu diren eta lantzen dihardugun beste arlo bat bileretan euskararen erabilera handitzeko lanak izan dira. Alde batetik lehen esan dudan moduan esan Batzar Nagusiak euskaraz egiten dira 2002tik aurrera, Kontseilu Errektorearen erabakiz. Baina ohiko bilera operatiboetan ere lan handia egin da azken urteetan euskararen erabilera handitzeko. Horretarako bilera horietan partaideek talde mailako konpromisoak hartu izan dituzte. Era honetan bilera batzuk euskara hutsez egitea lortu da eta beste batzuetan bileran lantzen diren gaietakoren bat gutxienez euskaraz jorratzea.

8. METODOLOGIA

Testuinguru teorikoa landu eta enpresaren Euskara Plana testuinguru historikoan kokatu ondoren Fagor Taldeko langile batzuen esperientzietatik atera nahi izan ditut ondorioak. Horretarako 8 elkarrizketa sakon egin ditut euskaldun berriekin (4 euskalduntzea lortu dutenak eta 4 bidean geratu direnak) eta haiekin beraien ikas prozesuaren xehetasunak aztertu nahi izan ditut.

Aukeratzeko orduan kontuan hartu ditudan irizpideak hauek izan dira.

Euskaldundu diren langileen kasuan:

- Langileak euskaldun berriak izatea (familia erdaldunak, eskolan euskara ikasi ez dutenak edo apenas).
- Momenturen batean lantegiko euskara eskola edo erabilera taldeetan parte hartutakoak izatea.
- Gaur egun euskarazko dinamiketan euskaraz arazorik gabe aritzen direnak izatea.

Euskaldundu ez direnen kasuan:

- Momenturen batean lantegiko euskara eskoletan aritutakoak izatea.
- Gaur egun euskarazko zenbait dinamiketan parte hartzen dutenak izatea.

Hasiera batean Fagor Taldeko euskara teknikariek hitz egin eta beraien laguntzaz elkarrizketatu gaien zerrenda egin nuen eta ondoren beraiekin hitz egin nuen parte hartu nahi zuten ala ez jakiteko. Lehen hurbilpen horretan lanaren nondik norakoa azaldu nien eta beraien izena ez zela inon agertuko ziurtatu nien (datu pertsonalak babeste aldera). Ondoren, baiezkoa eman zutenekin hitzordua jarri eta elkarrizketak egiteari ekin nion. Iraupenari dagokionez, euskaldunduen kasuan elkarrizketak luzeagoak izan dira, beraien prozesua luzeagoa izan delako eta xehetasunak kontatzerakoan faktore gehiagok hartzen zutelako parte.

Elkarrizketarako gidoi bat erabili nuen (ikus eranskinean) eta alde zuzenetik irakurrita ekar zezaten, e-mailez bidali nien guztiei. Hona hemen gidoiaren eskema nagusia:

- Kokapena: lantegia, saila, lan-mota...
- Euskararekiko harremana (biografia linguistikoa)
- Arrakastarako gakoak (euskaldundutakoenak) /Zergatik utzi zuten (euskaldundu ez direnei)
- Emozioak (euskarazko dinamiketan aritzen direnean sentitzen dituztenak)
- Aukerak, esperientzia berriak, etorkizunerako aholkuak.

9. EMAITZAK

Elkarrizketetan jasotako informazio osoa eranskinean duzue, eta puntu honetan elkarrizketatu bakoitzarengandik jasotako emaitza nagusiak nabarmenduko ditut. Lehen laurak euskalduntakoen elkarrizketak dira eta beste laurak euskaldundu ez direnenak:

1. elkarrizketa	Lantokia: Fagor Ederlan	Saila: Prebentzio eta Ingurumena
Adina: 41	Lan-mota: Prebentzio eta ingurumen saileko arduraduna. Prebentzioko teknikariek lan egiten du eta koordinazio lanak egiten ditu Usurbil, Fit, Borja eta Brasileko lantegiek.	
Hasierako egoera: gurasoak kanpotarrak, ikasketa guztiak gaztelaniaz. Euskara ikasgai gisa.		
Ikasteko motibazioa: aitak txikitatik esaten zion euskara ikasteko. Berak beti pentsatzen zuen: "Hemen nago eta euskaraz ikasi eta hitz egin behar dut. Lana topatzeko ere garrantzitsua da". Umeak baldin bazituen euskaraz nahiko lukeela hitz egin beraiekin pentsatzen zuen eta jomuga tituluren bat ateratzea ere izan zen momenturen batean, ez beti.		
Ikasketa prozesua: Institutu garaian (16-18 urte), uztailean eta abuztuan euskaltegian apuntatzen zen. 3 udara: 5. urratsera iritsi zen. Karrera denboran etena (dena gaztelaniaz). Lanean ez zioten euskara mailarik eskatu baina enpresetara asko joaten zenez pentsatu zuen ondo etorriko litzaiokeela euskaltegian berriro apuntatu eta euskara ikasteari ekitea. Beste hiru ikasturtetan ibili zen eta 7. urratseraino iritsi zen. Gero barnetegietan ere izan da 2 aldiz, behin bakarrik eta beste behin lankide batekin.		
Erabilera: Lanez aldatu zuen, lantegi berrian Euskara Plana martxan zegoen eta kooperatiban bertan euskara ikasteko taldeak zeudenez, izena eman zuen. Talde hartan mintzamena zen helburu nagusia, ez titulua ateratzea. Talde horretan lantegiko jendearekin pixkanaka euskaraz hitz egiten hasi zen eta zenbat eta gehiago hitz egin orduan eta lotsa gutxiago zuela konturatu zen.		

Lan-giroa ere oso euskalduna zen. Lankideek ere animatu egiten zuten. Bera jendearekin hitz egiten hasi zenean orduan gertatu zen aldaketa. Jende hori gainera ez zuen lehendik ezagutzen, ohiturak aldatu beharrik ez zuen.

Euskarazko dinamikak lanean: Mintza saioetan parte hartzen du. Motibatuta dago eta euskara planak eragina duela dio. Lanean aukera dauka hitz egiteko eta horri ez dio uko egin nahi. Euskarazko dinamiketan pausu handia eman duela aitortzen du. Lehen, euskaraz hasten zirenean ez zuen dena ulertzen eta bere buruari esaten zion "ikasten ari naiz, ez diot ulertzen. Konforme".

Orain, dena ulertzen du. Poza sentitzen du. Parte hartzen du. Berak euskaraz prestatu eta euskaraz egiten ditu bilerak. Lehenengo txostena prestatzen du gaztelaniaz, gero itzultzerantz bidaltzen du. Ondoren, nola azaldu prestatzen du eta gidoi bat eramaten du, "txuleta bat", trikimailuak ere erabiltzen ditu, ez bazaio modu horretan ateratzen beste modu batean esaten du. Batzuetan hitzak falta zaizkio eta pixka bat urduri ere sentitzen da baina orokorrean ez. Oso pozik sentitzen da, satisfazioa oso handia da. Adierazkortasunean galdu egiten duela badaki, baina ez du horrek kezkatzen.

Aholkuak: onena lotsa galtzea dela esaten du. Gramatika jakiteko zain ez egotea. Nolabait saltoa eman behar da. Beste aholku bat, ahal den aukerak aprobetxatzea da, bestela ikasitakoa galdu egiten delako. Giro euskalduna izateak ere asko laguntzen du lanean. Zenbat eta gehiago hitz egin, hobeto, gehiago daki eta aukera gehiago aprobetxatzen ditu.

2. elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate, Donostia	Saila: Bulego teknikoak, siderurgia
Adina: 41	Lan-mota: bulego teknikoko zuzendaria	
<p>Hasierako egoera: gurasoak erdaldunak, ikasketa guztiak gaztelaniaz. OHOk 4. mailatik UBira arte euskara ikasgai gisa.</p> <p>Ikasteko motibazioa: Txikitatik, berari erakargarria egiten zitzaion euskara, bertako hizkuntza zelako. Ez zegoen aurka (beharbada besteen kontra jartzeagatik). Nahiz eta inguruan zein familian euskararekiko komentarioak negatiboak izan, berak beti izan duelako euskararekiko kezka barruan, sentimendu berezi bat. Ez daki azaltzen nondik datorkion ez zergatik. Bestalde,</p>		

azpimarratzen du asko gustatzen zaiola ikastea eta erronkak behar dituela beti. Ezaugarri hori barneratuta dauka eta jakin-min handia du. Lana topatzeko ona izango zela pentsatzen zuen baina ez zen horregatik presionatuta joan, euskara ikasi egin nahi zuen eta hori zen motibaziorik handiena. Gainera, berak euskara ikastea zaletasun bezala hartu zuen.

Ikasketa prozesua: Karrera bukaeran, proiektua zela eta Alemaniara joan aurretik euskaltegian hasi zen. Ikasturte bat eta erdi egin zituen euskaltegian eta 5. urratsetik hasi eta 6 urratsean bukatu zuen. Alemaniatik bueltan lana topatu arte Curriculum Vitae-ak enpresetara bidali eta abuztuan barnetegira joan zen. Hitz egiterakoan libre, gidoirik gabe hasi eta....hitz egiten zuen ikasteko prozesuan. Hasieran bortxatu samar aritzen zela dio baina gero pixkanaka hizkuntza barneratzen joan zela. Han hasi zen benetan hitz egiten, eta jauzia eman zuen. Ondo moldatzen zen euskaraz eta Fagor Arrasaten lanean hasi zenean; Arrasaten eta Markinan ulertzea gehiago kostatzen zitzaion euskalkiagatik baina Donostialdean ondo.

Muntatzaile lanagatik 6 urtez kanpoan lan egitea tokatu zitzaion eta utzi egin zuen prozesua.

Zeukan lan ordu pilaketagatik hilabete batzuk libre eduki zituen eta berriro ere barnetegira joan zen. Bere emaztearekin joan zen eta bien arteko hizkuntza ohitura han aldatu zuten gaztelaniatik euskarara.

Ondoren, EGA ateratzeko helburua jarri zion bere buruari. Erronkagatik, ez besterik. Euskaltegian hasi zen astean hirutan 2 orduko saioak jasotzen eta lehenengoan atera zuen.

Erabilera: aldaketagatik Donostian lanean hasi zen eta giroz aldatu zuen. Lankide euskaldun batekin topo egin zuen. Hasieran gaztelaniaz hitz egin zion, baina barnetegira joan zela aipatu zionean euskara hitz egiten hasi zitzaion eta ondo egiten zuela esan zion. Bera ere ondo sentitu zen. Biak bulegora euskaraz hitz egiten sartu ziren. Lankide euskaldun horrek nolabait esatearren, sarrera euskaraz egin zion lantegian edo euskaraz aurkeztu zuen. Euskaraz egin zuen hasieratik jende askorekin eta ohitura hori hartu zuen hasieratik. Lehendik ez zuen harremanik inorekin, berria zen eta hasieratik euskaraz egin zuen.

Euskarazko dinamikak lanean: Momentu honetan lanean bere inguruan 4 euskaldun daude eta laneko gaietaz buruz ere euskaraz aritzen da.

Markinan batzuetan ulertzen ez duenean gaizki sentitzen da.

Aitortzen du euskarazko dinamiketan hitz egin behar duenean konturatzen dela erraztasuna galtzen duela eta ulertzeko ere arreta gehiago jarri behar duela. Erdaldunen bat baldin badago bileraren batean adibidez, gaztelaniara pasatzen da eta egoera hori hobeto kudeatzen du orduan. Hala ere, euskarazko dinamiketan ez da larritzen, 40 pertsonaren aurrean publikoki hitz egin behar duenean edo bilera potoloetan, parte hartzea jaitsi egiten duela konturatzen da. Berak ohitura aldatzea lortu du lankide batzuekin baina hasieran lotsa sentitzen dela dio.

Bera orain harro dago lortutakoarekin.

Aholkuak: Berarentzat gakoa euskara ikastea zaletasun bat bezala hartzea izan zen. Oro har, Erronkekin hori egiten du. Behartuta sentitzeak ez duela laguntzen iruditzen zaio. Helburu bat jarri behar da eta horretara iristeko esfortzua egin. Esfortzua egiteko prest egon behar da. Deditazioa eta esfortzua eskatzen du. Ez euskaltegiara joan, joateagatik.

Bere ustez, maila minimo bat edo nahiko altua behar da hitz egiten hasteko. Ulermen maila bakarrik ez. Moldatzeko modukoa. Berbalagunak lagun dezake, lankide batekin lor daitekeen naturaltasun horrek laguntzen du.

Berak uste du hizkuntza bat ikastea norberagandik atera behar dela hasieran eta hor euskara planak edo euskara teknikariak ez duela esku hartzen, norberak baizik. Gero, ikastea gainera lanean erabili badaiteke, horrek erraztu egiten du prozesua. Formazio plana helburu jakin batzuekin planteatuz gero, agian, horrek lagunduko luke.

3. elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate	Saila: Bulego teknikoa, estanpazioa
Adina: 49	Lan-mota: proiektu kudeatzailea	
<p>Hasierako egoera: gurasoak erdaldunak, ikasketa guztiak gaztelaniaz.</p> <p>Ikasteko motibazioa: euskara ikasteko gogoa zuen. Hemengo hizkuntza delako, hemen bizi garelako, beste hizkuntza batzuk bai eta bertakoa ez? Garai artean euskararen aldeko giroa ere indartsua zen Arrasaten eta horrek ere lagundu zion ikastera animatzeko. Prozesua bukatu egin nahi zuen, lehen hasitakoa bukatu eta ikasi egin nahi zuen. Ez zaizkio gauzak bukatu gabe</p>		

uztea gustatzen. Ez zuen motibazio instrumentalik izan, lanerako ez zioten eskatzen euskara titulurik. Semeari ere euskaraz egiteak motibatzen zuen. Momentu honetan motibazioa umeei euskaraz egiteak du.

Ikasketa prozesua: 16 urterekin gau eskoletan hasi zen euskara ikasten. 18 urterekin utzi egin zion euskara ikasteari (5 bat urte). Soldadutzatik bueltan, lanean hasi zen eta orduan berriro ekin zion ikasteari. 2 edo 3 ikasturte egin zituen eta 8 urratsera arte iritsi zen eta utzi egin zuen (nekatuta ere bazegoen). Lantegian ez zuen inorekin praktikatzeko. Euskaltegian bakarrik. Markinan lan egitea proposatu zioten eta ikusita lan hartarako euskara beharko zuela, hilabete bateko barnetegia egiteko aholkatu zion gerenteak, Zornotzan. Hala egin zuen eta han jariotasuna eta segurtasuna lortu zituela aitortzen du.

Erabilera: 8 urratsa lortu eta handik urte batzuetara Fagor Arrasaten Euskara Plana jarri zen abian. Ikastaroetara apuntatzeko aukera zegoela jakin zuenean izena eman zuen (pare bat ikasturte). Parte hartzeko eta euskaraz hitz egiteko buruan dena lotuta eduki behar zuen, bestela ez zuen hitz egiten edo beste era batera esaten zuen. Euskaltegian ere hala zen. Gerenteak Markinako lantegira joatea proposatu zion. Barnetegira joan zen eta handik bueltatu eta Markinan lanean hasi zenean hasiera-hasieratik euskaraz lanean hasi zen. Bilerak, kontseilutxoak...dena euskaraz egiten zituen. Gerenteak zoriondu egin zuen. Poza sentitu zuen.

Euskarazko dinamikak lanean: Orain Arrasaten dago berriro eta gutxiago erabiltzen du. Ulertzeko arazorik ez du eta euskarazko dinamiketan arazorik gabe dihardu. Proiektu batzuetan euskaldunak izaten dira kide guztiak eta horrelako kasuetan bilera euskaraz bada, nahiz eta batzuetan kosta egiten zaion hitzak topatzea, bilera euskaraz jarraitzeko gai da, erraztasunik ez duela konturatu arren.

Aholkuak: hizkuntza bat ikasi eta erabiltzearen gakoa hizkuntza hori beharrezkoa izatean datza berarentzat. Euskararen ondoan gaztelania dugunez, norbaitek ez badu ulertzen hizkuntza berehala ordezkatzeko dugu eta kito.

Lantegian Berbalaguna moduko egitasmoek erabilerarako saltoa egiteko lagun dezaketela uste du.

4. elkarrizketa	Lantokia: Fagor Assembly	Saila: Bulego teknikoa,
Adina: 36	Lan-mota: mekaniko teknikoa	
<p>Hasierako egoera: gurasoak erdaldunak, ikasketa guztiak A erduan.</p> <p>Ikasteko motibazioa: Argi ikusi zuen euskaraz hitz egin nahi zuela kalean jendearekin eta komunikatzeko kaleko euskara ikasi nahi zuela. Aspertuta zegoen bere bizitzan beti egon zen separazioarekin; alde batetik euskaldunak eta bestetik "maketoak". Bere burua gai sentitzen zuen euskara ikasteko eta euskara ikasi NAHI zuen. Desberdintasun hori gainditu egin nahi zuen. kalean hitz egiteko eta komunikatzeko hizkuntza ikasi nahi zuen.</p> <p>Ikasketa prozesua: 17-18 urterekin uztailean euskaltegira apuntatu zen lehen aldiz. Lehenengo udaran ikastaro trinkoan apuntatu zen eta 3-4 urratsak gainditu zituen. 2. udaran ere beste hainbeste egin zuen eta trinkoetan 7-8 urratseraino iritsi zen. Espontaneitatez jokatzeko zuen, hasieratik euskaraz pentsatzen saiatzen zen.</p> <p>Erabilera: euskaltegikoek Aretxabaletako aisialdi taldean sartzea gomendatu zioten. Euskal dinamika batean sartu zen. Gainera umeekin hizkuntza ikastea errazagoa egiten dela esaten du beraiei lotsarik gabe hitz egiten zela, naturaltasunez; eta umeekin ere gaizki esaten zituen gauzak batzuetan zuzendu egiten zizkiotelako, naturaltasunez.</p> <p>Orduan askatu zela dio. Benetan hobetu egin zuen bere euskara eta hiztegia eta formak ere freskotasunez ikasi zituen.</p> <p>Gainera, lagun berriak egin zituen, euskal giroko lagunak eta horiekin beti euskaraz egiten zuen. Haiek ere, bere helburuaren berri bazekitenez, beti euskaraz egiten zioten.</p> <p>Garai hartan, euskal giro hartan oso ondo sentitu zen. Gaur egun bere kintoko euskaldunek euskaraz hitz egiten diote. Herri txikia denez, denek dakite ikasi egin duela, euskaraz ondo moldatzen dela eta barrera hori gainditu egin du. Gustura sentitzen da, harro, konfiantzaz eta satisfazioz betea. Lagun asko irabazi dituela dio.</p> <p>Euskarazko dinamika lanean: Lehen lan egin zuen enpresan gaztelaniaz funtzionatzen zuten baina berak bezero euskaldunekin (euskaldunak zirela</p>		

baldin bazekien) euskaraz egiten zuen. 98-99an euskara plana hasi zenean azpikontratatu bezala egiten zuen Mondragon Essemblyn eta garai hartan EIKA eta ORKLYrekin aritzen zirenean, bezero euskaldunekin, planoak euskaraz idazten hasi ziren. Erabilera taldeetan ere parte hartu zuen. Momentu honetan ez du planaren euskal dinamika antolatuetan parte hartzen (formazioan, lehiaketetan...) baina euskaraz dakitenekin euskaraz egiten du beti.

Euskarazko bileraren batean azalpen teknikoak edo eman behar dituenen esan behar duena ondo erreparasaten du lehenengo. Oraindik ere horrelako kasuetan konfiantza falta edo beldur eszeniko txikia sentitzen du eta hori gainditzeko lehenengo bere buruan, barrutik, esan behar duena ondo pentsatu eta erreparasatu egiten du eta ondoren esan.

Hasierako helburua lortu du, aseta dago, hitz egiteko ez du arazorik eta euskal dinamiketan parte hartzeko ere ez. Euskaraz idaztea eta irakurtzea kostatzen zaio baino ahozkoa ez.

Aholkuak: Euskaldun berriak euskal taldeetan sartzea. Adinaren eta gustuaren arabera (kirol taldeak, aisialdi taldeak eta abar). Ez itxoin euskarazko maila altua izan arte. Saltoa lehenago eman eta aukera guztiak aprobetxatu (kalean, lanean, familian..). Enpresan Berbalaguna bezalako egitasmoak positibotzat hartzen ditu.

5. elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate, Mondragoe	Saila: Bulego teknikoa, estanzazioa
Adina: 43	Lan-mota: Estanzazioko zuzendaria (Mondragoe, Fast eta Markina)	
<p>Hasierako egoera: 2. OHOTik euskara ikasgai bezala ikasi zuen, UBIra arte. HEOKo 2. maila gainditu zuen orduan.</p> <p>Ikasteko motibazioa: 39 urterekin Fagor Etxetresnetan lanean zebilela hilabete batzuetan Euskara Eskoletan apuntatu zen, ez zuen ikasturte osoa egin. Maila baxuan, kontzeptuak birgogoratzeko beharra zuen. Motibazioa: euskara teknikariak proposatu ziolako. Gaur egun alabengatik motibatua sentitzen da.</p>		

Ikasketa prozesua zergatik utzi zuen: Hilabete batzuetan aritu zen, baina ikasturtea bukatu gabe Fast-eko zuzendari izendatu zuten eta utzi behar izan zuen. Lan karga (batzuetan klasera joatea esfortzu handia zen) eta bidaiengatik (hasi eta eten, hasi eta eten...).

Ikasteko estrategia: bere ikas estrategia gramatika dominatzean datza (liburua). Beraien lanean idaztea ere oso garrantzitsua da, ia bezeroekin duten harreman gehiena e-mail bidezkoa da. Ahozkoa baino gehiago behar da idatzizkoa ustez eta horregatik dominatu behar du gramatika ere.

Erabilera: ez du erabiltzen.

Euskarazko dinamikak lanean: Euskarazko dinamiketan ia gehiena ulertzen duela dio, batzuk hobeto besteak baino (hizkera motagatik, batzuetan power pointak daudelako, gaien arabera..). Beragatik ez du nahi besteak gaztelania pasatu beharra sentitzea. Ulertzeko ahalegina egiten du eta ez badu ulertzen galdetu egiten du.

Aholkuak: on line ikastaroak eta Berbalaguna egitasmoa interesgarritzat jotzen ditu.

6. elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate, Mondragoe	Saila: Bulego teknikoa, estanzazioa
Adina: 40	Lan-mota: proiektuen kudeaketa eta koordinazioa.	

Hasierako egoera: 5-6 OHOtik 4. REM arte euskara ikasgai bezala izan zuen. Elkarrizketa oinarrizkoenak ulertzen zituen.

Ikasteko motibazioa: Karrera bukatu eta lanean hasi zenean euskaltegian hasi zen. 2 ikastaro egin zituen. Lana bukatu eta 2 orduko ikastaroak. 2 urrats aurreratu zituen lehen ikasturtean eta beste 2 bigarreanean. Gutxi gorabehera 4. urratsera iritsi zen. Ondoren, Fagor Arrasaten hasi zen euskara eskoletan. Ikasturte erdia egin zuen. Ondoren, lantegiko batzuekin astebete egin zuen Barnetegian (soltura hartu zuen).

Motibazioa? Integrazteko. Ez zuen nahi beragatik euskaldunak gaztelaniara pasa beharra sentitzea.

Ikasketa prozesua zergatik utzi zuen: Ez zegoen gustura irakaslearekin. Lan

asko zuen, denbora galtzen zutela iruditzen zitzaion eta irakasleak desmotibatu egin zuen. Denbora faltak ere desmotibatzen du.

Ikasteko estrategia: ikas-prozesuan ausart samarra izan naiz. Espresiboa da eta hizkuntzak ikasterakoan ere bai, hitz egitera salto egiten du, nahiz eta jakin ez duela ondo hitz egiten.

Erabilera: ez du erabiltzen, noizean behin esaldiren batzuk..

Euskarazko dinamikak lanean: Batzuetan bileretan euskaraz ari badira, egoera horiek onartu egiten ditu. Normalean ez dute beragatik aldatzen hizkuntza besteei. Hori gertatu izan den batzuetan, esaten die " tira en euskera que te entiendo". Galdetzen badiote, zer nahiago duen, esaten die euskaraz egiteko, berak ulertzen duela.

Aholkuak: Nahiago du motelago ikasi, baina trantsizioa igarri gabe, pixkanaka badoa euskaraz gauza laburrak esaten. Lantegian etengabe entzuten du euskaraz hitz egiten jendea. Elkarrizketa asko. Horrek lagundu egiten diola esaten du eta pixkanaka ikasten ari dela sentitzen du.

7. elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate, Mondragoe	Saila: Bulego teknikoa, estanzak
Adina: 47	Lan-mota: estanzako ingeniari burua. Pertsonen kudeaketa eta kudeaketa teknikoa (kalkulu espezializatuak)	

Hasierako egoera: Ez zuen euskararik entzuten bere inguruan 18 urtera arte. Ezagutza 0. Euskara ikasgai bezala ere ez zuen eduki eskolan.

Ikasteko motibazioa: 34-35 urterekin seme-alabak euskaraz eskolatuko zirenez, interesa piztu zitzaion, baina inoiz ez ikastekoa, ulertzera iristekoa baizik, badakielako ez duela inoiz gaztelaniaz transmititu dezakeena transmititu ahal izango, errekurtsio faltagatik.

Garai hartan etxean ere El Correok banatutako fitxa batzuk eta liburu batzuk ere erosi zituen eta hasi zen autoikaskuntza moduko zerbaitetan.

Bulego orokorretan lanean aritu zenean, euskara ikasten hasteko proposamena egin zion Fagorrek eta hiru urtez joan zen ikastaroetara. Momentu hartan egokitzen jo zuen. Proposatzen izan ez balio ez zukeen inoiz egingo.

Gai orokorretan, elkarrizketak ulertzeko edo jarraitzeko maila duela aitortzen du baina gai konplexuetan ez, gaztelaniaz ere askotan ez direlako errazak.

Ikasketa prozesua zergatik utzi zuen: zaila egiten zitzaion bulegoan zituen kezka, abisu larri edo arazoak alde batera utzi eta ordu eta erdi ikastaroan egotea. Burua beste leku batean zuen eta ez zen behar bezala kontzentratzen. Bezeroak berehala artatu behar dira arazoak daudenean eta berak presio hori sentitzen du ikastaroan dagoenean.

Erabilera: ez du erabiltzen.

Euskarazko dinamikak lanean: Lan munduko euskarazko dinamikak oso naturalak direla dio eta ez dela inoiz gaizki sentitu. Euskaldunak euskaraz ari badira eta jarrai badezake, bada ondo, baina gai teknikoak direnean dio gaztelaniara pasatzen direla beragatik langileak eta konturatzen ez badira eta euskaraz jarraitzen badute gai teknikoetan bada, beti egoten dela bateren bat, modu oso naturalean esaten duena: "goazen hori gaztelaniaz komentatzera denok ez dugu ulertzen eta". Ez du arazorik izaten.

Aholkuak: Berarentzat gaiak jartzen dute muga. Gai errazak uler ditzake baina zailak ez. Berbalagunak funtziona dezakeela dio euskaraz ikasleentzat.

8. elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate, Mondragoe	Saila: Elaborazioa, estampazioa
Adina: 38	Lan-mota: mandrinatzeko makinako langilea	
<p>Hasierako egoera: Ikasketa guztiak A ereduan. 20 bat urte zituela ikasturte bat egin zuen euskaltegian (arratsaldetan 2 ordu). Hasierako mailan zegoen. Utzi egin zuen eta gero aita izan zenean alabarekin euskaraz egiteko berriro hasi zen ikasten eta AEKn bi ikasturte egin zituen eta beste urte batean irakasleak etxeko lanak jartzen zizkion eta gero tutoretzetara joaten zen. Gainera etxean telebista eta irratia euskaraz entzuten zituen eta ulermena asko hobetu zuen. Hala ere hitz egiten ez zen askatu. Lotsatia da, kosta egiten zaio, ondo ez badu esaten urduri jartzen da, hanka sartzea inporta zaio.</p> <p>Ikasteko motibazioa: hasiera batean apuntatu zenean motibazioa indartsua zen, ikasi egin nahi zuen, amorrua ematen dio euskara ez jakitea hemengoa izanda. Ulertu egin nahi zuen, ez zaiolako gustatzen besteak beragatik hizkuntzaz aldatzea. Bigarren aldiz hasi zenean motibazioa alaba izan zen gehien bat.</p>		

Ikasketa prozesua zergatik utzi zuen:

Bigarren haurra eduki zuenean, denbora faltagatik utzi egin zuen. Gainera aitortzen du zeharo deskonektatu duela eta ez duela jarraitu irratia, telebista eta abar euskaraz entzuten. Utzita dauka dena.

Euskarazko dinamikak lanean:

Bilera informatiboak: euskarazkoetara joaten da batzuetan (txandaren arabera) eta nahiko ondo ulertzen duela dio, euskara batutik gertuko euskara erabiltzen dutenean. Euskalkiarekin arazo gehiago ditu. Gainera aitortzen du hitz berriak ikastea gustatzen zaiola, eta zerbait ez duenean ulertzen edo berria denean atentzia jartzen duela hitz hori ikasteko.

Batzar Nagusia ere euskaraz izaten da eta itzulpen automatikorako sistemarik gabe jarraitzeko gai da, nahiko ondo jarraitzen du dena, den-dena ulertu ez arren.

Burdinkaria aldizkaria (Fagor Arrasaten hiruhilero euskara hutsean ateratzen den berripapera) irakurtzen du eta ondo ulertzen du. Erreleboka egiten du lan eta bere txandako gehienak euskaraz hitz egiten dute. Beraien arduradunarekin egiten dituzten bileretan egoera hau izaten da: arduraduna euskalduna da eta denekin ari denean gaztelaniaz aritzen da, badakielako den-denak ez dakitela. Baina euskaldunak interbentzioetan euskaraz egiten dute eta nire elkarrizketatuak ulertzen die. Ez da deserosoa berarentzat. Ogitartekoa jateko deskantsuetan ere, euskaldunak beraien artean euskaraz egiten dute. Bera elkarrizketan sartzen bada gaztelaniaz egiten diote

Aholkuak: barnetegi bat beharko lukeela euskaraz hitz egiten hasteko.

Fagor Arrasateko euskara eskolen kasuan, hiru ordu baldin badira astean, gero hiru ordu horiek errekuperatu egin behar dira. Erdia bada ere enpresak bere partetik jarri beharko lukeela dio. Euskara Planari dagokionez iruditzen zaio tailerrera ez dela askotan informazioa iristen eta hori faltan botatzen du.

10. EMAITZEN EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Ikerketarako elkarrizketatu ditugun langile guztiak erdal familiakoak dira, ikasketa guztiak gaztelaniaz egindakoak, beraien bizitzako momenturen batean euskara ikasten hasi direnak (batzuk lan barruko euskara formazioaz baliatu direnak, beste batzuk euskaltegietan) eta denak gaur egun euskarazko

dinamiketan parte hartzen dutenak (betiere neurri desberdinean). Fagor Arrasaten edo Fagor Taldeko kooperatibetan dabilta lanean eta guztietan daude martxan euskara planak.

Euskarazko dinamika horiek honako hauek lirateke: lantegiko bilera informatiboak (euskaraz eta gaztelaniaz ordutegi desberdinetan daude langileek hizkuntza aukeratu ahal izateko), lantegi barruko departamendu bilerak (langileak euskaldunak direnean eta arduradunak ere bai, euskara hutsean egiten direnak), Batzar Nagusia (euskaraz izaten da nagusiki eta gaztelaniarako aldi bereko itzulpen zerbitzua jartzen da), Euskara Batzordea eta Burdinkaria berripapera (euskara hutsean argitaratzen dena hiru hilero).

Baina langile horiek, nahiz eta lehen aipatu ditudan ezaugarriak komunean izan, ez dute prozesua modu berean bizi izan, ez dute denek euskara ikasi eta hortaz ez dute denek lortu euskarazko dinamiketan txertatzea.

Batzuengan eta besteengan eragin duten faktore horiek azaltzeko, lehendabizi euskara ikasi eta lanean erabiltzen duten kasuak aztertzea joko dut eta elkarrizketatuengan errepikatzen diren portaera, ohitura aldaketa, motibazio gorabeherak eta abar xehetasunez aipatuko ditut ahal balitz arrakastarako gakoak identifikatuz:

- **Motibazioa:** elkarrizketatutako lau langileek esan didate hasierako motibazioa ez zela instrumentala izan eta motibazio altua zutela bai hasieran eta bai prozesuan zehar ere. Kasu guztietan hemengoak zirelako eta bertako hizkuntza ikasi nahi zutelako hasi ziren, euskaraz komunikatu egin nahi zuten, ez bakarrik ulertu. Hizkuntzarekiko kezka hori zuten barruan laurak. Lana topatzeko ere garrantzizkoa zela diote 2 langilek. Titulazioa edo zehazki EGA ateratzeko erronka ere aipatu dute bi pertsonak, baina ez hasieratik, prozesuaren amaieran baizik. Euskara ikastea zaletasun bat bezala hartu zuen beste batek eta hori gomendatzen die euskaldun berri guztiei. Beste batek dio inguruan euskal giroa izateak (bai gizartean eta bai lanean) ere lagundu ziola. Eta azkenik izaera kontuak ere aipatu dituzte bi

langileek, gauzak hasi eta bukatzea gustatzen ziola beti azpimarratu du batek eta besteak ikastea gustatzen zaiola, edozer, jakin-mina edo grinagatik hasten dela ikasten beti.

Txepetxek (1987) dioen bezala elkarrizketatutako heldu hauek ibilbide kulturaletik abiatu dira, kulturazko motibazioetik abiatu dira, inguruak, eta identifikazioak bultzatuta eta motibazioak nahikotasun maila gainditu duenean, hizkuntzaren jabe-kuntzarekin hasi dira. Beraz, nire hasierako hipotesia emaitza hauek baieztatu egin dute motibazioaren faktorea arrakasta izan duten kasu guztietan errepikatu baita.

- **Ikasketa prozesua:** laurak gaztetan euskaltegiko ikastaroetara joan ziren, gero etena egin zuten (karrera ikasketengatik) eta ondoren lan munduan hasi eta gero berriro hasi ziren ikasten 4 horietatik hiru. Barnetegira joan direnak hiru izan dira eta EGA atera duena bat. Berriro ere lau langile hauen kasuan Txepetx soziolinguistak dioena eta lanaren hipotesian aipatutako ezagutzaren faktorea lau kasu horietan bete egin da, alegia, ezagutza nahikotasun mailara iritsi da.
- **Erabilera:** elkarrizketatutako hiruk lanez aldatu zuten eta lanpostu aldaketa horietan lan giroa oso euskalduna izan dutela diote hiru horiek. Gainera, lana aldatzean, lehendik ez zituzten lankide horiek ezagutzen eta ez zuten ohitura aldatu beharrik izan; euskara erabiltzen hasi ziren hasieratik. Laugarrenaren kasua ere antzekoa da baina aisialdi talde batean eman zuen jauzi hori, lehendik ezagutzen ez zuen testuinguru batean eta haur eta begiraleek lagunduta. Hiru kasutan errekonozimendua ere izan dute, euskaraz ondo egiten zutela esaten zieten euskaldunek eta horrek asko lagundu zien (horietako bat gerenteak ere zoriondu egin zuen) eta laugarren langilearen kasua ere konturatu zen herri txikia batekoa izanik, euskaldunak jakin zutenean euskaraz ikasi nahi zuela denek egiten ziotela euskaraz. Lau kasuetan nolabait esateko euskaltegietako ikastaro estandarretatik at eman dute erabilerarako saltoa: Barnetegietan bi pertsonak, aisialdi

talde batean beste batek eta azkenak laneko euskara taldeetan baina helburu bakarra mintzamenean jarritako talde batean. Horrela galdu zuten denek euskaraz aritzeko lotsa eta euskal giro handiko lantegietan lankideekin euskaraz hitz egiten hasi ziren.

Lau elkarrizketatu hauek erabilerarako etapa horretan, jauzi horretan, Stephen Krashen (1987) psikolinguistak aipatutako berezko ezagutza garatu dutela esango nuke, hau da, bigarren hizkuntzaren input ugaria eta egokia jaso dute. Horrez gain, jasotako inputa osoa izan da eta beraien arreta erakarri duena, lanean eta eguneroko giroan sortutakoa izan baita. Hizkuntzaren praktikan murgildu dira (ez gramatikan), erabilerari lotuak egon dira eta hizkuntzaren ezagutza ez-kontzientea garatu dute. Egoera komunikatiboan murgilduta egon dira eta input ulergarria luzez jaso ondoren, denon baitan berez sortzen den hizkuntza-gaitasunak ezin hobeto erakutsi die berezko ezagutza nola garatzen den. Hari esker, hitzak eta esaldiak ahora etorri zaizkie, eginak eta osatuak, beraiak sortu gabe. Beraz, hasierako hipotesian aipatutako input ugariaren gako hau ere euskarazko dinamiketan arrakastaz txertatu direnen kasuetan oso garrantzitsua izan dela esango nuke.

- **Euskarazko dinamikak lanean:** dena ulertzen dute eta euskaraz parte hartzen dute beti. Pozik daude. Harro sentitzen dira. Konturatzen dira adierazkortasuna galtzen dutela euskaraz, baina horrek ez ditu kezkatzen, jende askoren aurrean hitz egitean urduriago jartzen dira lehen hizkuntzan baino, baina hala ere euskaraz egiten dute. Horrelako kasuetan trikimailuak dituzte: gidoiak prestatu, gauza bera beste era batera esan, esan behar duena ondo erreparatu hasieran eta abar. Arreta handiagoa jarri behar dute batzuetan, batez ere euskalkian aritzen direnean. Batek aitortu du lankide batzuekin hizkuntza ohitura aldatzea lortu duela baina hasieran lotsa sentitzen zuela. Beste batek dio giro erdaldunago batera bueltatu dela eta kosta egiten zaiola lankide euskaldun batzuekin euskaraz aritzea.

Esango nuke hiztun hauengan Krashenek azpimarratzen duen bezala, hizkuntzaren erabilerako prozesuan aldagai afektiboa ere garrantzitsua izan dela eta horrek nire hasierako hipotesia baieztatu egingo luke. Denek aipatzen dituzte egindako elkarrizketetan: harrotasun sentimendua, satisfazioa, hizkuntzaren aldeko jarrera, jarrera pragmatikoak eta auto-estimua (batzuetan beste euskaldunen errekonozimendu keinuek edo esaldiek indartzen zutena). Beraien aldarte emozional horiek barneko ate batzuk zabaldu, aktibatu eta inhibititu egin dituzte, hizkuntza normaltasunez edozein dinamiketan erabiltzeko adina. Halaber, zenbait elkarrizketatuk azpimarratu dute gizarte estrategiak erabiltzea ere oso garrantzitsua izan dela beraiantzat. Hau da, inputaren kantitatea ugaltzeko taktikak erabili dituzte: euskal giroaz inguratu dira eta euskaraz egiteko norberak duen gogoia euskaraz eginez aditzera eman dute.

Zalantzarik gabe "harrotasun" hori helburuak lortzetik etorri zaie eta horrek berak pertsonaren motibazioan eragin positiboa izan du. Hainbat ikerketek diote hori horrela gertatzen dela:

Zeregin exijenteak baina errealistak lortzeko konpromisoa hartzea eta arrakasta lortzeak kompetenteago sentitzea dakar. Eraso sexual bati aurre egiteko beharrezko trebetasun fisikoak menperatzean, emakumeak zaurikortasun txikiagoz, antsietate gutxiagoz eta kontrol sententzio handiagoz sentitzen dira (Ozer eta Bandura, 1990). Arrakasta akademikoa izan eta gero, ikasleek beraien gaitasun akademikoari buruzko balorazio altuagoa izaten dute, eta horrek gogorrago lan egitera eta lorpen gehiago edukitzeko bultzatzen ditu (Felson, 1984; Marsh eta Young, 1997). Norberaren hoberena emateak eta helburuak lortzeak konfiantza eta gaitasun handiagoa sentitzea dakar. (Myers, 2001: 39).

Bestalde, lanean euskara ikasten hasi, urte batzuetan euskara ikasten aritu eta prozesua bertan behera utzi dutenen esperientzia ere jaso dut. Euskalduntzeko bidean hasi eta bertan behera uzteko zein faktorek eragin duten galdetu diet, uztearen zergatietan sakondu eta Euskara Plana enpresan izan arren zer laguntza eskertuko luketen identifikatu nahi izan dut. Beste 4 elkarrizketatuekin bezala lau puntu aztertu ditut eta hona hemen errepikatu diren faktore batzuk:

- **Motibazioa:** bi kasutan beraiengandik sortu da ikasteko gogoia, integratu egin nahi zutelako eta ez dutelako nahi besteek beraiengatik gaztelaniaz hasi beharrik sentitzea. Beste bi kasuetan euskara teknikariak proposatuta hasi dira ikasten, Euskara Planaren barruan. Gaur egun, hiru elkarrizketatu seme-alabengatik motibatua sentitzen dira, haiek euskaraz eskolatzen ari direlako. Bik aitortu dute motibazioa ulermen mailara iristea izan zela beti ez hitz egitekoa.

Txepetxek dioen bezala elkarrizketatutako bi heldu ibilbide kulturean abiatu dira, kulturazko motibaziotik abiatu dira, inguruak, eta identifikazioak bultzatuta. Beste bi, euskara teknikariak proposatuta hasi dira. Hala ere, guztien kasuan motibazioa nahikotasun maila sendo batetara ez dela iritsi esango nuke eta hori izango litzateke ,nire hipotesiaren arabera, arrakasta ez lortzeko faktoreetako bat. Horregatik, hizkuntzaren jabekuntza prozesua hasi bai baina ez baita nahikotasun mailara iritsi. Hala ere kulturazko motibaziotik abiatu diren biak, ulermen maila batera iritsi direla aitortu dute eta euskarazko dinamiketan hobeto moldatzen dira besteak baino.

- **Ikasketa prozesua eta uztearen arrazoiak:** hiru langilek maila baxuan zebiltzala utzi zuten eta beste batek 4-5. urratsean utzi zuen baina Barnetegira joan zen gero, eta mintzamenean han aurreratu zuela dio. Uztearen arrazoa hiru kasutan denbora falta izan da eta beste batek irakasleak desmotibatu zuela dio. Ikasteko estrategia lau kasuetan gramatikala izan da, Barnetegira joan zenaren kasua izan ezik.

Lehen esan dudana bezala, ezagutza ez da erabilerara jauzia egiteko nahikotasun mailara iritsi. Hau da, lau elkarrizketatu hauek Stephen Krashen (1987) psikolinguistak, aipatutako berezko ezagutza ez dute garatu, hau da, ez dute bigarren hizkuntzaren input ugaria eta egokia jaso; eta ez da bete hipotesian aipatutako

faktore hori. Horrez gain, jasotako inputa hiru kasutan behintzat ez da osoa izan, euskaltegiko edo laneko euskara formazioko taldeetan entzundakoa bakarrik jaso dute. Hizkuntzaren praktikan ez dira murgildu (gramatikan murgildu dira batez ere), erabilerari lotuak ez dira egon eta hizkuntzaren ezagutza kontzientean aritu dira batez ere.

- **Erabilera:** batek bakarrik erabiltzen ditu, esaldi solteak, agurrak gehien bat; besteek ez dute euskararik erabiltzen lanean. Ez dute erabilerarako jauzirik eman.
- **Euskarazko dinamikak lanean:** ia gehiena ulertzen duela diote hiru langilek, gauza batzuk hobeto besteak baino (batuaren gertuko hizkera, batzuetan power pointak daudelako, gaien arabera..). Beraiengatik ez dutela nahi besteak gaztelania pasatu beharra sentitzea diote lautik hiruk. Euskaldunak euskaraz aritzen direnean portaera desberdinak dituzte. Batek dio ulertzeko ahalegina egiten duela eta ez badu ulertzen galdetu egiten duela. Beste batek dio normalean ez dutela beragatik aldatzen hizkuntza besteek. Hori gertatu izan den batzuetan, esaten diela "tira en euskera que te entiendo". Hirugarrenak dio euskaldunak euskaraz ari badira eta jarrai badezake, bada ondo, baina gai teknikoak direnean gaztelaniara pasatzen direla beragatik langileak. Azkenak dio arduradunak gaztelaniaz egiten dituela bilerak bera dagoelako, nahiz eta beste guztiak euskaldunak izan, baina euskaldunak interbentzioak euskaraz egiten dituztela eta berak ulertzen diela eta ez dela deseroso sentitzen.

Elkarrizketatuen esanetan, euskarazko dinamiketan entzule bihurtzen dira denak. Horietako hiruk maila desberdinean izan arren ulermen maila nahiko ona dutela aitortzen dutenez, emozioei buruz galdetzean zera diote: ez direla deseroso sentitzen besteak euskara hutsean aritzen direnean eta ulertzen ez badute lasai esaten dietela euskaldunei esandakoa errepikatzeke edo polikiago hitz egiteko.

Sentimenduei dagokionez, hiruk esan dute ez zaiela gustatzen beraiengatik besteek hizkuntza aldatu behar izatea, baina bat bakarrik izan da esan duena berak euskaldunak euskaraz jarraitzea animatzen dituela, ulertzen duela esplizituki adieraziz. Besteek ez dute horrelakorik adierazten eta orduan ingurukoak gaztelaniaz hitz egiten hasten dira beraiek dauden bileretan.

Aurrera begirako bideei dagokionez, esango nuke bi bide desberdin har daitezkeela:

Alde batetik, ezagutzako nahikotasun maila lortu arte euskara formazioa jaso dutenentzat erabilerarako jauzia emateko egitasmoak lirateke onenak lan munduan: adibidez Berbalaguna, barnetegiak, bazkaltegiak eta abar. Horrelako egitasmoekin, lehen 4 elkarrizketatuei gertatu zaien bezala, input ugaria, osoa eta erakargarria eskainiko litzaieke eta hizkuntzaren berezko ezagutzan murgilduko lirateke, euskal giroan. Nire ustez, titulu jakin bat lortzeko ez bada, euskara ikasteko modu kontzientetik urrundu eta lehen aipatutakoak jarri beharko lirateke martxan. Horrela, euskalduntze prozesu horretan daudenak euskaraz hitz egiteko dituzten aukera guztiak aprobetxatzera bideratuko genituzke, gramatika guztia jakiteko zain egon gabe eta ikaskuntza prozesutik jabekuntza prozesura bideratuz. Gainera, alderdi afektiboari ere duen garrantzia eman beharko litzaioke eta prozesu horretan emozioak zaindu, beraientzat bidelagun positiboak izan daitezen.

Bestetik, euskara ikasten hasi behar dutenekin edo momenturen batean utzi eta berriro hasi nahi dutenekin, ulermen mailara iristeko Konprenitzen eta NEL egitasmoek eskaintzen duten proposamena interesgarria iruditzen zait, hauetan hasieratik input ugariari, errealari eta mezua ulertzeari ematen baitzaie garrantzia eta hizkuntzaren jabekuntza mekanismoan oinarrituta daudelako biak ere emozioei eta hizkuntza jarrerei ere berariaz erreparatuz (batez ere NEL egitasmoan). Krashenek dioenez, mezuak ulertuz garatzen dugu gramatika intuitiboa, eta gerora, hortik sortuko zaigu hizketarako jarria. Zirraren agerpenak eragingo du beti mekanismoa bizkortzea ala moteltzea, eta horregatik saiatu beharko genuke emozioetan eta motibazioan gehiago eragiten. Ikaskuntza prozesuak ere bere lekua izan dezake ikasleak hizkuntzaren aldeko zalantzak galdetzen dituenean eta abar, baina beti ere arrazoizko ikaskuntza sistematiko eta logikoa bigarren mailako garrantzia duen

prozesua izango litzateke. Norbere jarioa ikuskatzeko, aztertzeko edota zuzentzeko balioko luke ildo honetatik lortutako ezagutzek. Une egokian eta era neurtuaz erabiliz gero, osagarri eta lagungarri zaio fakultate hau hizkuntzaz jabetzeko berezko ahalmenari.

11. BIBLIOGRAFIA

- AMONARRIZ, KIKE (2011, azaroa). Englishdun berriak eta non-native euskaldunak. *Campus*, 76, 37 orr.
- APAOLAZA, Eñaut (2006, otsaila). Fagorrek euskara behar du. *Erabili.com* (2006-02-13): http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1139586818
- APAOLAZA, Eñaut (2007). *TRAINAK: Hizkuntzen kudeaketarako gizarte sareen lanketa enpresetan*. HIZNET, 06-07 ikasturteko sakontze egitasmoa (argitaratu gabe).
- APAOLAZA, Eñaut (2008). Fagor Arrasate eta EMUN koop. E.: Akuilu taldeak Fagorren. *Eralan ikerketa proiektua: EPEsA metodologia. Lan giroko hizkuntza erabileran eragiten duten aldagaietan oinarritua*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- APAOLAZA, Eñaut eta ALUSTIZA, Joxean (2005, abendua). Ez da eremurik haizea sartzan ez denik (Euskararen haizeak Fagor Arrasaten). *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 57.
- ARANBARRI, ZIHARA, (2007). *ELAY, bide erakusle*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- BAILEY, N; MADDEN, C eta KRASHEN, S. (1974). Is there a “natural sequence” in adult second language learning?. *Language Learning* 24: 235-243.
- CORDER, S. P. (1983): Strategies of communication. In Faerch, Cl. eta Kasper, G. (bil.): *Strategies in interlanguage communication*. New York: Logman. 15-19 orr.
- DULAY, H.; BURT, M eta KRASHEN, S. (1983). *Language Two*. New York: Oxford University Press.
- ELHUYAR AHOLKULARITZA, CAF-EKO EUSKARA BATZORDEAK, (2010). *CAFEKO hizkuntza politika orokorra*. Beasain.
- ELSER, PETRA (2012, maiatza) Euskera eta lana. *Berria.info* (2012-05-25): http://paperekoa.berria.info/iritzia/2010-11-12/006/006/euskara_eta_lana_ii.htm
- FELSON, R. B. (1984). The effect of self-appraisals of ability on academic performance. *Journal of Personality and Sozial Psychology*, 47, 860-870; 39, 578 orr.
- INTXAUSTI, Nahia eta UNANUE Amagoia (2002). *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*. Arrasate: EMUN-Lanki.

- IRIZAR SAINZ, Amaia eta KAREAGA IRAZABALBEITIA, Arianne (2003). *Arrasate. Kooperatiba baten ibilbidea*. Arrasate: Fagor Arrasate.
- KRASHEN, S. (1977). Some issues relating to the Monitor Model. In H.D. Brown, C. Yorio eta R. Crymes (bil.): *On TESOL '77: Teaching and Learning English as a Second Language: Trends in Research and Practice*. Washington: TESOL. 144-158 orr.
- KRASHEN, S. (1987), *Principles and practice in second language acquisition*. London: Prentice-Hall International.
- LITTLEWOOD, W (1986). *Hizkuntza arrotzen eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntza*. Donostia: HABE.
- MARKO, J. INAZIO (2009). *Hizkuntza-eraldaketa organizazioetan: Esperientzia eta modelizazioa*. (Doktore tesia). Donostia: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- MARSH, H. W. eta YOUNG A. S. (1997). Causal effects of academic self-concept on academic achievement: Structural equation models of longitudinal data. *Journal of Educational Psychology*, 89, 41-54 orr.
- MOLINA, Fernando (2005). *Jose Maria Arizmendarreta (1915-1976) Biografia*. Arrasate: Caja Laboral-Euskadiko Kutxa.
- MOLINA, Fernando (2006). *Fagor Electrodomésticos. Historia de una experiencia cooperativa*. Arrasate: Fagor Electrodomésticos S. Coop.
- MYERS, David G. (2001). *Psicología Social*. Santa Fe de Bogota: McGraw-Hill.
- OZER, E. M eta BANDURA, A. (1990). Mechanisms governing empowerment effects: A selfefficacy analysis. *Journal of Personality and Social Psychology*, 58, 472-486 (41 orr.).
- RUIZ, JUANJO (2009). *AKUILU TALDEAK: Euskararen aldeko eragiletza hizkuntza asertibitatearen bidetik*. HIZNET 08-09 ikasturteko sakontze egitasmoa.
- SANCHEZ CARRION, J.M., "TXEPETX", (1987). *Un futuro para nuestro pasado: Claves De La Recuperación Del Euskera y Teoría Social De Las Lenguas*. Teoría de los aprendizajes. San Sebastián: Elkar.
- SUBERBIOLA, P. eta JAUREGI, P (2011). *ALDAHITZ IKERKETA Euskara ikasi dutenen hizkuntza-ohituren aldatetarako lan munduan. Ikerketaren txosten osoa*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

12. ERANSKINAK

12.1. GALDETEGIA

Kokapena: lantegia, saila, lan-mota...

Euskararekiko harremana (biografia linguistikoa)

Noiz hasi ikasten

Nola

Norekin

Zenbat denbora

Arrakastarako gakoak

Zergatik uste duzu ikasi zenuela? / Zergatik uste duzu ez zenuela ikasi?

Zein izan zen ikasten hasteko motibazioa? eta jarraitzeko? /Zergatik utzi zenuen?

Ikas estiloa? (estrategiak, izaera)

Euskaltegiak gain, laguntzarik bai?

Familian

Lagunartean

Lanean, motibazioaren aldetik, zer pisu du lanean Euskara Plana izateak?

Lanean, euskaraz funtzionatzen duen dinamikaren batean parte hartzen al duzu? Noiztik?

Emozioak

-Nola sentitzen zinen euskaraz funtzionatzen duen dinamika batean?

-Ezer egin al duzu emozio hori kudeatzeko?

Aukerak, esperientzia berriak

-Euskaraz zertxobait dakiten lankideek nola parte hartu dezakete euskaraz funtzionatzen duten lan dinamiketan?

-Zer esperientzia gomendatuko zenuke?

-Zer egin beharko litzateke arrakastarako bidean enpresa mailan laguntzeko?

12.1. ELKARRIZKETAK

1. Elkarrizketa	Lantokia: Fagor Ederlan	Saila: Prebentzio eta Ingurumena
Adina: 41	Prebentzioko teknikariek lan egiten du eta koordinazio lanak egiten ditu Usurbil, Fit, Borja eta Brasileko lantegiekin.	

Elgoibarkoa da eta gurasoak erdaldunak dira. Orain Mendaron bizi da.

Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen Elgoibarko Herri Eskolan eta euskara ikasgai bezala ikasi zuen. Ikasgai horretan beti nota ona ateratzen zuela gogoratzen da. Bere gurasoak kanpokoak izan arren, aita txikitatik esaten zion euskara ikasteko, aita euskara ikastearen aldekoa zen eta garrantzia ematen zion horri.

Bai eskolan, bai institutuan, bai herrian bi giro desberdin zeuden; euskaldunak alde batetik eta erdaldunak bestetik. Berak beti pentsatzen zuen: "Hemen nago eta euskaraz ikasi eta hitz egin behar dut. Lana topatzeko ere garrantzitsua da".

Euskararekiko harremana (biografia linguistikoa)

Institutu garaian (16-18 urte), uztailean eta abuztuan euskaltegian apuntatzen zen, 5 orduko ikastaro trinkoetan. Hor asko ikasi zuen, 3 udaratan joan baitzen eta 5. urratsera arte edo iritsi zen gutxi gorabehera.

UBI eta karreraren berriz euskararekiko harremanik ez zuen izan eta 5 urteko etena egon zen. Koadrilan eta unibertsitatean ikaskideekin dena gaztelaniaz egiten zuen. Eibarko Unibertsitate Laboralean ikasi zuen, dena gaztelaniaz.

Karrera bukatu zuenean Eibarko Fremap-en hasi zen lanean. Lanean ez zioten euskara mailarik eskatu baina enpresetara asko joaten zenez pentsatu zuen ondo etorriko litzaiokeela euskaltegian berriro apuntatu eta euskara ikasteari ekitea. Gainera, etorkizunean ere pentsatzen hasi eta umeak baldin bazituen euskaraz nahiko lukeela hitz egin beraiekin pentsatzen zuen eta jomuga tituluren bat ateratzea ere izan zen (ahal bazuen, EGA). Hala egin zuen eta euskaltegian apuntatu zen berriro. 3 urtetan joan zen eta 7. urratseraino iritsi zen.

Arrakastarako gakoak

Lanez aldatu zuen eta Fagor Ederlanen hasi zen. Euskara Plana martxan zegoen eta kooperatiban bertan euskara ikasteko taldeak zeudenez, izena eman zuen. Aretxabaletako euskaltegira joaten zen lantegiko jendearekin osatutako taldean. Talde hartan mintzamina zen helburu nagusia, ez titulua ateratzea. Ez zegoen horrelako presiorik. Lehen pentsatzen zuen hitz egiteko gramatika asko behar zuela eta lotsagatik ez zuen inoiz saltorik eman mintzaminenerako. Euskaltegian bakarrik hitz egiten zuen, hortik kanpo berriz ez. Baina talde horretan lantegiko jendearekin pixkanaka euskaraz hitz egiten hasi zen eta zenbat eta gehiago hitz egin orduan eta lotsa gutxiago zuela konturatu zen. Barrera apurtu zuen. Lan-giroa ere oso euskalduna zen eta horrek ere lagundu zion.

Kalean, dendetan...pixkanaka euskaraz hitz egiten hasi zen.

Lankideek ere animatu egiten zuten eta oporretan 3 aldiz barnetegian apuntatu zen Zornotzan. Bi urtetan bera bakarrik joan zen eta hirugarrenean lankide batekin. Egonaldi bakoitzean 15-20 bat egun egiten zituen eta soltura handia hartzen zuen. 7. urratsa gainditu zuen.

Lan- mundua

Mintza saioetan parte hartzen du asteen ordubetez eta aitortzen du lantegian euskara ikasteko taldeak egongo balira, apuntatuko litzatekeela.

Euskara teknikariari liburuak eskatu eta batzuetan etxean ariketak egiten ditu.

Motibatuta dago eta euskara planak eragina duela dio. Aukera dauka hitz egiteko eta horri ez dio uko egin nahi. Horregatik ez du maila jaisten.

Enpresan barruan ere lanpostuz aldatu zuen eta lehengo lankideek ikusten dutenean, bileretan eta abar, zoriondu egiten dute, ondo hitz egiten duela esaten diote eta asko aurreratu duela. Errekonozimenduak ere laguntzen duela dio.

Gaur egun euskaraz hitz egiten du lanean, bere alabarekin, alabaren irakaslearekin, dendetan eta kalean. Lehengo lagunekin ez, batzuk euskaraz ikasi dute baina ohitura aldatzea ez du lortu.

Euskarazko dinamiketan pausu handia eman duela aitortzen du. Lehen, euskaraz hasten zirenean ez zuen dena ulertzen eta bere buruari esaten zion "ikasten ari naiz, ez diot ulertzen. Konforme".

Orain, dena ulertzen du. Poza sentitzen du. Parte hartzen du.

Bere arduradunak ez daki, baina komiteko bilerak euskaraz izatea nahi du. Horregatik, Antoniak berak euskaraz prestatu eta euskaraz egiten ditu bilerak.

Lehenengo txostena prestatzen du gaztelaniaz, gero itzultzera bidaltzen du. Ondoren, nola azaldu prestatzen du eta gidoi bat eramaten du, "txuleta bat", trikimailuak ere erabiltzen ditu, ez bazaio modu horretan ateratzen beste modu batean esaten du. Batzuetan hitzak falta zaizkio eta pixka bat urduri ere sentitzen da baina orokorrean ez. Oso pozik sentitzen da, satisfazioa oso handia da.

Gaztelaniaz baino trebetasun gutxiago duela nabari du eta adierazkortasunean galdu egiten duela badaki, baina ez du horrek kezkatzen.

Aukerak, esperientzia berriak

Aholkuak emateko orduan, onena lotsa galtzea dela esaten du. Gramatika jakiteko zain ez egotea. Nolabait saltoa eman behar da. Batzuetan hitzak falta zaizkionez, saiatzen da hiztegiara begiratu eta barneratzen. Adibidez dendara joan aurretik batzuetan hitz jakin batzuk begiratzen ditu, gero han ondo esateko.

Elgoibarko Barren aldizkaria irakurtzen du eta Mintzalagunean ez du parte hartzen herrian baina oso interesgarria iruditzen zaio ekimena, batez ere maila bereko euskaldun berriak elkartzuz gero. Elgoibarren ere euskaraz egiten du orain dendetan.

Mendaron Pilates ikastarora joaten da eta dena euskaraz da.

Beste aholku bat, ahal den aukerak aprobetxatzea da, bestela ikasitakoa galdu egiten delako. Giro euskalduna izateak ere asko laguntzen du lanean. Zenbat eta gehiago hitz egin, hobeto, gehiago daki eta aukera gehiago aprobetxatzen ditu.

Erabileran: bera jendearekin hitz egiten hasi zenean orduan gertatu zen aldaketa. Jende hori gainera ez zuen lehendik ezagutzen, ohiturak aldatu beharrik ez zuen.

2. Elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate, Donostia	Saila: Bulego teknikoa, siderurgia
Adina: 41	Lan-mota: bulego teknikoko zuzendaria	

Donostiakoa da eta gurasoak erdaldunak dira.

Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen Marianisten ikastetxean. Euskaraz zekiten ikaskideak bazeuden, bakan batzuk, baina ez zuten euskaraz egiten eskolan.

Euskararekiko harremana (biografia linguistikoa)

OHoko 4. mailan hasi zen euskara ikasten ikasgai gisa. Ikasgai "maria" zen. Gainera, ikastetxean, bere ustetan, nahiko gaizki ikusita zegoen euskara. Berari erakargarria egiten zitzaion euskara, bertako hizkuntza zelako. Ez zegoen aurka (beharbada besteen kontra jartzeagatik), baina ez zuen esfortzurik ere egiten.

Unibertsitatean giroa desberdina zen, probintziako jendea etortzen zen ikastera eta euskara dezente entzuten zen eta interes gehiago zegoen orokorrean. Karrera bukaeran, proiektua zela eta Alemaniara joan aurretik euskaltegian hasi zen. Ikasturte bat eta erdi egin zituen euskaltegian eta 5. urratsetik hasi eta 6 urratsean bukatu zuen.

Zergatik hasi zen? Nahiz eta inguruan zein familian euskararekiko komentarioak negatiboak izan, berak beti izan duela euskararekiko kezka barruan, sentimendu berezi bat. Ez daki azaltzen nondik datorkion ez zergatik.

Bestalde, azpimarratzen du asko gustatzen zaiola ikastea eta erronkak behar dituela beti. Ezaugarri hori barneratuta dauka eta jakin-min handia du. Berdina gertatzen zaio beste erronkekin ere, Alemana ikastea, lanean ari zela Ingeniaritza lizentziatura lortzea, Montblanc-era igotzea....Erronkak gustatzen zaizkio eta zerbaitekin hasten bada helburua jarri eta lortu arte ez da gelditzen. Proiektua egitera Alemaniara joan zenean, euskara pixka bat ulertzen zuen. Handik itzultzean lana topatu arte Curriculum Vitaeak enpresetara bidali eta abuztuan barnetegira joan zen, Lazkaora. Lana topatzeko ona izango zela pentsatzen zuen baina ez zen horregatik presionatuta joan, euskara ikasi egin nahi zuen eta hori zen motibaziorik handiena. Gainera, berak euskara ikastea zaletasun bezala hartu zuen. Jakin-min handia zuen eta gaur egun ere badu hitzekin eta aditzekin ere bai garai batean. Baina hitz egiterakoan libre, gidoirik gabe hasi eta....hitz egiten zuen ikasteko prozesuan. Hasieran bortxatu samar aritzen zela dio baina gero pixkanaka hizkuntza barneratzen joan zela. Han hasi zen benetan hitz egiten, eta askatu egin zen.

Barnetegiko egonaldia bukatu zenean Fagor Arrasaten hasi zen lanean muntatzaile bezala. Kanpora bidaiatzen zuen eta Bartzelonako komertzial bat (euskalduna zena) euskaraz hasi zitzaion behin eta hitz egiteko maila dezente ona zuela esan ziola gogoratzen du. Sentsazio ona eman ziola. Donostialdean ondo moldatzen zen eta Markinako eta Arrasateko lantegian gehiago kostatzen zitzaion euskalkiagatik.

Muntatzaile lanagatik, kanpora asko bidaiatzen zuelako eta egonaldi luzeak egiten zituelako kanpoan, utzi egin zion euskaraz hitz egiteari eta 6 urtetan ez zuen euskaraz hitz egin.

Arrakastarako gakoak

Lanpostu aldaketa bat izan zuen eta Donostiako bulego teknikoan hasi zen lanean. Zeukan lan ordu pilaketagatik hilabete batzuk libre eduki zituen eta berriro ere barnetegira joan zen. Oraingo honetan emazteak bultzatuta. Emaztea Bartzelonakoa da eta Euskal Etxean hasi zen euskara ikasten. Beti esaten zion, EHra etorriko balitz bizitzera euskara ikasiko lukeela. Emaztea hona etorri zenean bizitzera, Alecopen hasi zen lanean eta Arrasaten Zumaia eta Legorreko pisu kideak izan zituen. Beraiekin belarria egin zitzaionez, barnetegira joateko animatu zuen eta Danieli ere biok joateko ideia proposatu zion. Hala, biak animatu eta biak joan ziren barnetegira.

Nahiz eta ordura arte beraien artean gaztelaniaz aritu izan, barnetegira euskara ikastera joan eta beraiek biak elkarrekin gaztelaniaz aritzea inkoherentzia iruditu zitzaion. Beraz, bien artean euskaraz han hasi ziren. Hasieran zaila izan zen baina lortu zuten. Gaur egun semeei biak euskaraz egiten diete eta euskara da etxeko hizkuntza. Hilabete eta erdi egun zuten barnetegian eta 9. edo 10. maila lortu zuen Danielek.

Lehen aipatu dudanez, lan aldaketagatik Donostian lanean hasi zen eta giroz aldatu zuen. 31 urte zituen. Kasualitatez, lan berrira sartu zen lehen egunean aparkalekuan lankide euskaldun batekin topo egin zuen. Hasieran gaztelaniaz hitz egin zion, baina barnetegira joan zela aipatu zionean euskara hitz egiten hasi zitzaion eta ONDO egiten zuela esan zion. Bera ere ondo sentitu zen. Biak bulegora euskaraz hitz egiten sartu ziren. Sarreran zegoenarekin ere hitz egin zuten barnetegiari eta euskara ikasteari buruz eta lankide euskaldun horrek nolabait esatearren, sarrera euskaraz egin zion lantegian edo euskaraz aurkeztu zuen. Euskaraz egin zuen hasieratik jende askorekin eta ohitura hori hartu zuen hasieratik. Lehendik ez zuen harremanik inorekin, berria zen eta hasieratik euskaraz egin zuen.

Ondoren, EGA ateratzeko helburua jarri zion bere buruari. Erronkagatik ez besterik. Euskaltegian hasi zen astean hirutan 2 orduko saioak jasotzen eta lehenengoan atera zuen. Ondo pasa zuen, nahiko erraz atera zuen eta idazlana gainditzeko trikimailuak erabiltzen zituen (egitura jakin batzuk errepikatu eta horrelakoak...), gainera gero enpresak ordaindu zion matrikula.

Lagun artean gaztelaniaz egiten du, ez dakitelako besteek.

Lan- mundua

Momentu honetan lanean bere inguruan 4 euskaldun daude eta laneko gai ei buruz ere euskaraz aritzen da.

Markinan batzuetan ulertzen ez duenean gaizki sentitzen da.

Aitortzen du euskarazko dinamiketan hitz egin behar duenean konturatzen dela erraztasuna galtzen duela eta ulertzeko ere arreta gehiago jarri behar duela. Erdaldunen bat baldin badago bileraren batean adibidez, gaztelaniara pasatzen da eta egoera hori hobeto kudeatzen du orduan. Hala ere, euskarazko dinamiketan ez da larritzen, 40 pertsonaren aurrean publikoki hitz egin behar duenean edo bilera potoloetan, parte hartzea jaitsi egiten duela konturatzen da.

Aukerak, esperientzia berriak

Berarentzat gakoa euskara ikastea zaletasun bat bezala hartzea izan zen. Erronkekin hori egiten du. Behartuta sentitzeak ez duela laguntzen iruditzen zaio. Helburu bat jarri behar da eta horretara iristeko esfortzua egin. Esfortzua egiteko prest egon behar da. Deditazioa eta esfortzua eskatzen du. Ez euskaltegiara joan, joateagatik.

Bere ustez, maila minimo bat edo nahiko altua behar da hitz egiten hasteko. Ulermen maila bakarrik ez. Moldatzeko modukoa. Berbalagunak lagun dezake, lankide batekin lor daitekeen naturaltasun horrek laguntzen du.

Berak ohitura aldatzea lortu du lankide batzuekin baina hasieran lotsa sentitzen da. Gaur egun hitz egin bai baina euskaraz ez du ia irakurtzen, kosta egiten zaio. Ikasteko prozesuan berriz, oso garrantzitsua dela dio.

Bera orain harro dago lortutakoarekin eta EGA lortzeak ere harrotasuna sentiarazi zion.

Berak uste du hizkuntza bat ikastea norberagandik atera behar dela hasieran eta hor euskara planak edo euskara teknikariak ez duela esku hartzen, norberak baizik. Gero, ikastean gainera lanean erabili badaiteke, horrek erraztu egiten du prozesua. Formazio plana helburu jakin batzuekin planteatuz gero, agian. Horrek lagunduko luke.

Motibazio, ezagutza eta erabileraren Txepetxen teoriarekin ados dago. Berak B ibilbidea egin duela aitortzen du.

3. elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate	Saila: Bulego teknikoa, estanpazioa
Adina: 49	Lan-mota: proiektu kudeatzailea	

Arrasatekoa da eta gurasoak erdaldunak dira.

Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen San Viator ikastetxean.

Euskararekiko harremana (biografia linguistikoa)

16 urterekin gau eskoletan hasi zen euskara ikasten. Zergatik? euskara ikasteko gogo zuen. Hemengo hizkuntza delako, hemen bizi garelako, beste hizkuntza batzuk bai eta bertakoa ez? Garai artean euskararen aldeko giroa ere indartsua zen Arrasaten eta horrek ere lagundu zion ikastera animatzeko. Pare bat urtez horrela ikasi zuen euskara.

18 urterekin utzi egin zion euskara ikasteari. Ingeniaritza ikasten hasi zen eta lana ere egiten zuenez ALEKOPen, ez zuen denborarik. 5 bat urtean.

Soldadutzatik bueltan, lanean hasi zen eta orduan berriro ekin zion ikasteari. Prozesua bukatu egin nahi zuen, lehen hasitakoa bukatu eta ikasi egin nahi zuen. Ez zaizkio gauzak bukatu gabe uztea gustatzen. HABE euskaltegian hasi zen Arrasaten eta lanetik irten eta gero joaten zen klaseetara. 2 edo 3 ikasturte egin zituen eta 8 urratsera arte iritsi zen (18:00-20:00). Ez zuen motibazio instrumentalik izan, lanerako ez zioten eskatzen euskara titulurik.

8 mailara iritsi zenean utzi egin zuen. UNEDen ikasten hasi zen eta gainera aitortzen du nekea iritsi zitzaiola. Lantegian ez zuen inorekin praktikatzen. Euskaltegian bakarrik. Lankideek bazekiten euskara ikastera joaten zela baina lanean hitz egiten ez zuenez, lankideek ere ez zioten hitz egiten eta alderantziz, berari inork egiten ez zionez berak ere ez.

Handik urte batzuetara Fagor Arrasaten Euskara Plana jarri zen abian. Ikastaroetara apuntatzeko aukera zegoela jakin zuenean izena eman zuen. Mailaketa proba egin zioten eta euskara teknikariak esan zion euskara eskolak ezetz, mintza saioak behar zituela berak, nolabait askatu egin behar zuela. Erabilera taldeetan apuntatu zen orduan. Talde horietan pare bat ikasturte egin zituen. Parte hartzeko eta euskaraz hitz egiteko buruan dena lotuta eduki behar zuen, bestela ez zuen hitz egiten edo beste era batera esaten zuen. Euskaltegian ere hala zen.

Arrakastarako gakoak

Fagor Arrasateko gerenteak Markinako lantegira joatea proposatu zion zuzendari lanak egitera. Gainera ikusita lan hartarako euskara beharko zuela, hilabete bateko barnetegia egiteko aholkatu zion, Zornotzan. Hala egin zuen eta han jarriotasuna eta segurtasuna lortu zituela aitortzen du Mikelek. Ordurako ezkondata zegoen eta ume txiki bat zuten. Emaztea markinarra da eta semeari ere euskaraz egiteak motibatzen zuen. Inflexio puntua hori izan zela dio Mikelek.

Handik bueltatu eta Markinan lanean hasi zenean hasiera-hasieratik euskaraz lanean hasi zen. Bilerak, kontseilutxoak...dena euskaraz egiten zituen. Ekainean hasi zen han lanean eta urrian bazkide jubilatuek Markinako lantegira bisita egin zuten bulego berriak ireki zituztelako (urtero egiten da irteeraren bat beraiekin, bazkari eta guzti). Gogoan du autobusetik jaitsi eta nola agurtu zituen euskaraz eta gero ere nola aritu zen beraiekin euskaraz. Gero, bisita bukatu eta hurrengo egunean gerenteak kontatu zion denak harrিতuta geratu zirela euskaraz hitz egiten zuelako eta zoriondu egin zuen. Poza sentitu zuen eta bazkide jubilatuek ere hori adierazi zioten, poza.

Lan- mundua

Handik Arrasatera bueltatu da berriro eta soltura galdu egin duela dio.

Gaur egun umeei euskaraz hitz egiten die eta emaztea ere euskalduna izateak laguntzen dio. Ulertzeko arazorik ez du eta euskarazko dinamiketan arazorik gabe dihardu. Normalean berari dagozkion bilerak gaztelaniaz egiten dira baina proiektu batzuetan euskaldunak izaten dira kide guztiak eta horrelako kasuetan bilera euskaraz bada, nahiz eta batzuetan kosta egiten zaion hitzak topatzea, bilera euskaraz jarraitzeko gai da, erraztasunik ez duela konturatu arren. Mekaniko elektriko batzuekin euskaraz aritzen da baina ondoan duen euskaldun batekin gaztelaniaz egiten du beti ohituragatik.

Aukerak, esperientzia berriak

Berarentzat momentu honetan motibazioa umeei euskaraz egiteak du.

Berak uste du hizkuntza bat ikasi eta erabiltzearen gakoa hizkuntza hori beharrezkoa izatean datzala. Euskararen ondoan gaztelania dugunez, norbaitek ez badu ulertzen hizkuntza berehala ordezkutzen dugu eta kito. Lantegian Berbalaguna moduko egitasmoek erabilerarako saltoa egiteko lagun dezaketela uste du.

4. Elkarrizketa	Lantokia: Fagor Assembly	Saila: Bulego teknikoa,
Adina: 36	Lan-mota: mekaniko teknikoa	

Aretxabaletakoa da eta gurasoak erdaldunak dira. Arrebarekin ere gaztelaniaz hitz egiten zuen etxean.

Haur eskola monjetan egin zuen, A ereduan. Euskaldunak eta erdaldunak nahastuta zeuden eskola hartan eta jolastorduetan eta..euskaldunekin euskaraz egiten zuela gogoratzen da. Han hartu zuen oinarri pixka bat.

6 urterekin Lehen Hezkuntzara joan zenean beste eskola batean hasi zen eta hango zuzendariak esan zien gurasoei euskaraz ez zuela soltura nahikorik eta A ereduan hasteko. Hala egin zuen eta EGB eta REM ere A ereduan egin zituen. Arrasateko Eskola politeknikora joan zen gero ikasketak egitera eta han ere gaztelaniaz ikasi zuen.

Euskararekiko harremana (biografia linguistikoa)

17-18 urterekin uztailean euskaltegira apuntatu zen lehen aldiz. Argi ikusi zuen euskaraz hitz egin nahi zuela kalean jendearekin eta komunikatzeko kaleko euskara ikasi nahi zuela. Aspertuta zegoen bere bizitzan beti egon zen separazioarekin; alde batetik euskaldunak eta bestetik "maketoak". Kirol ekintzetan ere euskaldunak ekipo batean eta erdaldunak bestean aritzen ziren eta hori txikitatik bizi izan zuen.

Bere burua gai sentitzen zuen euskara ikasteko eta euskara ikasi NAHI zuen. Desberdintasun hori gainditu egin nahi zuen.

Lehenengo udaran ikastaro trinkoan apuntatu zen eta 3-4 urratsak gainditu zituen (ez zen zero-zerotik ere abiatu). 2. udaran ere beste hainbeste egin zuen eta trinkoetan 7-8 urratseraino iritsi zen. Gustura zebilen euskaltegian baina konturatu zen ikasleen artean ere motibazio eta helburu desberdinak zituztela. Batzuk oso ondo pentsatzen zuten dena hitz egiten hasi aurretik (gramatika, zuzentasuna....) eta berak berriz, espontaneitatez jokatzeko zuen, hasieratik euskaraz pentsatzen saiatzen zen. Irakaslea konturatu zen hitz egiteko erraztasuna zuela. Motibazioa ez zen titulu bat ateratzea, kalean hitz egiteko eta komunikatzeko hizkuntza ikasi nahi zuen. Orduan, euskaltegikoek Aretxabaletako aisialdi taldean sartzea gomendatu zioten: Ortzadar taldean. Udalekuak antolatzen zituzten umeekin uztailetan eta gero neguan zehar asteburuetakoko umeentzako ekintzak.

Arrakastarako gakoak

Euskal dinamika batean sartu zen. Begiraleak ama hizkuntza euskara zutenak ziren eta antolatzen zituzten ekintzak ere euskara sustatzekoak ziren askotan (Herri Urratsera joan, Korrikan parte hartu...). Gainera umeekin hizkuntza ikastea errazagoa egiten dela esaten du berak beraiei lotsarik gabe hitz egiten zuelako, naturaltasunez; eta umeei ere gaizki esaten zituen gauzak batzuetan zuzendu egiten zizkiotelako, naturaltasunez.

Orduan askatu zela dio. Benetan hobetu egin zuen bere euskara eta hiztegia eta formak ere freskotasunez ikasi zituen.

Gainera, lagun berriak egin zituen, euskal giroko lagunak eta horiekin beti euskaraz egiten zuen. Haiek ere, bere helburuaren berri bazekitenez, beti euskaraz egiten zioten.

Garai hartan, euskal giro hartan oso ondo sentitu zen.

Lan- mundua

1998tik 2012era Aretxabaletako lantegi txiki batean egin zuen lan. 9 langile ziren eta 3 edo lauk bakarrik zekiten euskaraz. Laneko giroa erdalduna zen eta euskaldunen artean ere askotan gaztelaniaz aritzen ziren baina bezero euskaldunekin (euskaldunak zirela baldin bazekien) euskaraz egiten zuen.

Lanetik kanpo berriz, lagunekin, dendetan euskaraz.

Familian: guraso eta emaztearekin gaztelaniaz baina umeekin euskaraz aritzen da. 5 urteko alaba bat du eta urte eta erdiko semea.

Lagunekin: txikitan eskolan ibili zenean nahiz eta beste gela batean ibili euskaldunak eta orduan harremana gaztelaniaz izan, gaur egun bere kintoko euskaldunek euskaraz hitz egiten diote. Herri txikia denez, denek dakite ikasi egin duela, euskaraz ondo moldatzen dela eta barrera hori gainditu egin du. Gustura sentitzen da, harro, konfiantzaz eta satisfazioz betea. Lagun asko irabazi dituela dio.

Ezkonduta zenean Bergarara joan zen bizitzera eta han hasieratik euskaraz egin izan du euskaldunetik eta naturaltasunez aritzen dela dio bai kalean eta bai elkarte gastronomikoan.

Orain dela urte eta erdi 2012eko irailean hasi zen Mondragon Essemblyn lanean. Lehendik ere enpresa horrekin bazuen lan harremana zenbaitetan azpikontratatu bezala aritzen zelako eta garai hartan oso giro erdalduna zegoela dio. Bulego teknikoan gaztelaniaz hitz egiten zela normalean.

98-99an euskara plana hasi zenean azpikontratatu bezala egiten zuen Mondragon Essemblyn eta garai hartan EIKA eta ORKLYrekin aritzen zirenean, bezero euskaldunekin, planoak euskaraz idazten hasi ziren.

Erabilera taldeetan ere parte hartu zuen hasiera batean. Gehien bat proiektuaren alde zegoelako hasi zen parte hartzen talde hauetan. Baina gaur egun dio asko kostatzen zaiola jarraipen koadernoan euskaraz idaztea eta irakurtzea ere bai, bere puntu fuertea ahozkoa da eta hala izaten jarraitzen du.

Mondragon Essemblyn lehen baino euskara gehiago egiten dela dio. Langile berriak sartu dira, euskal munduan jaio eta bizi direnak. Baina, enpresa osoa euskalduntzea oso zaila ikusten du, denak euskaraz pentsatu eta bizitzea...zaila.

Momentu honetan ez du planaren euskal dinamika antolatuetan parte hartzen (formazioan, lehiaketetan...) baina euskaraz dakitenekin euskaraz egiten du beti.

Euskarazko bileraren batean azalpen teknikoak edo eman behar dituen esan behar duena ondo erreparatzen du lehenengo. Oraindik ere horrelako kasuetan konfiantza falta edo beldur eszeniko txikia sentitzen du eta hori gainditzeko lehenengo bere buruan, barrutik, esan behar duena ondo pentsatu eta erreparatu egiten du eta ondoren esan.

Hasierako helburua lortu du, aseta dago, hitz egiteko ez du arazorik eta euskal dinamiketan parte hartzeko ere ez. Gainera, lehentasunak ere aldatu egin dira, aisialdian familiak betetzen dio tarte osoa.

Aukerak, esperientzia berriak

Euskaldun berriak euskal taldeetan sartzeari. Adinaren eta gustuaren arabera (kirol taldeak, aisialdi taldeak eta abar). Ez itxoin euskarazko maila altua izan

arte. Saltoa lehenago eman eta aukera guztiak aprobeztatu (kalean, lanean, familian..). Enpresan Berbalaguna bezalako egitasmoak positibotzat hartzen ditu.

Motibazio, ezagutza eta erabileraren edalontziak marraztu eta identifikatuta sentitu da Txepetxen teoriarekin. Hasiera batean motibazioaren edalontzia beteta zeukan berak, eta gero ere nahiko betea izan du beti. Orain motibazioa bere seme-alabei euskara transmititzea da.

5. Elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate, Mondragoe	Saila: Bulego teknikoa, estanzak
Adina: 43	Lan-mota: Estanzak zuzendaria (Mondragoe, Fast eta Markina)	

Bilboko da eta gurasoak erdaldunak dira.

Euskararekiko harremana (biografia linguistikoa)

Bilbon ikasi zuen Jesuitetan. 2. OHOTik euskara ikasgai bezala ikasi zuen, UBIra arte. HEOKo 2. maila gainditu zuen orduan.

Familia eta lagunak erdaldunak.

Karrera ikasi eta laneko lehen urteetan ez zuen euskararekin harremanik izan. Etena.

39 urterekin Fagor Etxetresnetan lanean zebilela hilabete batzuetan Euskara Eskoletan apuntatu zen, ez zuen ikasturte osoa egin. Maila baxuan, kontzeptuak birgogoratzeko beharra zuen.

Motibazioa: euskara teknikariak proposatu ziolako.

Zergatik utzi zuen

Hilabete batzuetan aritu zen, baina ikasturtea bukatu gabe Fasteko zuzendari izendatu zuten eta utzi behar izan zuen. Lan karga (batzuetan klasera joatea esfortzu handia zen) eta bidaiengatik (hasi eta eten, hasi eta eten...).

Bere ikas estrategia gramatika dominatzean datza (liburua). Beraien lanean idaztea ere oso garrantzitsua da, ia bezerekin duten harreman gehiena e-mail bidezkoa da. Ahozkoa baino gehiago behar da idatzizkoa.

Lan- mundua

Euskarazko dinamiketan ia gehiena ulertzen duela dio, batzuk hobeto besteak baino. Adibidez Marta Usabiaga, euskara motagatik, euskara batutik hurbilago...

Adibidez Markinan planta komitean Gorka Odiagari atentzioa handia jarri gero nahiko ondo ulertzen dio eta, power point-a aurrean baldin badu, hobeto ulertzen dio. Gaiak ere zerikusit handia du, gai garrantzitsuetan ondo ulertzea...ezinbestekoa da.

Beragatik ez du nahi besteak gaztelania pasatu beharra sentitzea. Ez balu ulertuko esango luke: no entiendo, podéis....

Markinan Planta Komitean eta Arrasaten Zuzendaritza Batzordean (salbuespenetan bada ere) euskaraz aritzen dira. Ulertzeko ahalegina egiten du eta ez badu ulertzen galdetu egiten du.

Aukerak, esperientzia berriak

On line ikastaroak.

Alabengatik motibatua dago ikastera.

Berbalaguna ere interesgarria iruditzen zaio.

6. Elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate, Mondragoe	Saila: Bulego tekniko, estanpazioa
Adina: 40	Lan-mota: proiektuen kudeaketa eta koordinazioa.	

Arrasatekoa da eta gurasoak erdaldunak dira.

Euskararekiko harremana (biografia linguistikoa)

Ikasketa guztiak (San Viator ikastetxean) gaztelaniaz egin zituen. 5-6 OHOtik 4. REM arte euskara ikasgai bezala izan zuen. Elkarrizketa oinarritzkoenak ulertzen zituen.

Ingeniaritza ikasketak egin zituen ondoren eta tarte horretan ez zuen euskararekin batere harremanik izan. Etena.

Karrera bukatu eta lanean hasi zenean euskaltegian hasi zen. 2 ikastaro egin zituen. Lana bukatu eta 2 orduko ikastaroak. 2 urrats aurreratu zituen lehen ikasturtean eta beste 2 bigarreanean. Gutxi gorabehera 4 . urratsera iritsi zen.

Motibazioa? Integrazteko. Ez zuen nahi beragatik euskaldunak gaztelaniara pasa beharra sentitzea.

Zergatik utzi zuen

Ondoren, Fagor Arrasaten hasi zen euskara eskoletan. Ikasturte erdia egin zuen. Ez zegoen gustura irakaslearekin. Lan asko zuen, denbora galtzen zutela iruditzen zitzaion eta irakasleak desmotibatu egin zuen.

Ondoren, lantegiko batzuekin astebete egin zuen Barnetegian. Lasturren. Soltura hartu zuen han.

Ikas-prozesuan ausarta izan da. Espresiboa da eta hizkuntzak ikasterakoan ere bai, hitz egitera salto egiten du, nahiz eta jakin ez duela ondo hitz egiten.

Lan- mundua

Lantegian etengabe entzuten du euskaraz hitz egiten jendea. Elkarrizketa asko. Horrek lagundu egiten diola esaten du eta pixkanaka ikasten ari dela sentitzen du.

Batzuetan bileretan euskaraz ari badira, egoera horiek onartu egiten ditu. Normalean ez dute beragatik aldatzen hizkuntza besteek. Hori gertatu izan den batzuetan, esaten die " tira en euskera que te entiendo". Galdetzen badiote, zer nahiago duen, esaten die euskaraz egiteko, berak ulertzen duela.

Aukerak, esperientzia berriak

Berbalaguna lagungarria izan litekeen galdetu diot eta esan du hori baino prozesu naturalagoak gustatzen zaizkiola. Nahiago du motelago ikasi, baina trantsizioa igarri gabe, pixkanaka badoa euskaraz gauza laburrak esaten.

Ingelesaren esperientzia kontatzeko esan diot eta esan du ez duela zerikusirik. Beharrak hitz egitera salto egitea eskatzen duela dio.

Gaur egun Goienkaria irakurtzen du eta normalean arazorik gabe ulertzen du. Desmotibazioa denbora falta da.

7. Elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate, Mondragoe	Saila: Bulego tekniko, estanpazioa
Adina: 47	Lan-mota: estanpazioko ingeniaritza burua. Pertsonen kudeaketa eta kudeaketa tekniko (kalkulu espezializatuak)	

Gasteizkoa da eta gurasoak erdaldunak dira.

Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen. Ez zuen euskararik entzuten bere inguruan 18 urtera arte. Ezagutza 0. Euskara ikasgai bezala ere ez zuen eduki eskolan.

Euskararekiko harremana (biografia linguistikoa)

26 urterekin hasi zen Fagor Arrasten lanean eta garai hartan euskara zertxobait entzuten zela dio, baina ez orain beste.

34-35 urterekin seme-alabak euskaraz eskolatuko zireneenez, interesa piztu zitzaion, baina inoiz ez ikastekoa, ulertzera iristekoa baizik.

Garai hartan etxean ere El Correok banatutako fitxa batzuk eta liburu batzuk ere erosi zituen eta hasi zen autoikaskuntza moduko zerbaitetan.

Bulego orokorretan lanean aritu zenean, euskara ikasten hasteko proposamena egin zion Fagorrek eta hiru urtez joan zen ikastaroetara. Momentu hartan egokitzen jo zuen, bestela ez zukeen inoiz egingo. Baina zuen lanagatik, oso asistentzia kaskarra izan zuen (orduen herena gutxi gorabehera) eta azkenean utzi egin zuen. Momentu hartan ere ez zuen lanetik kanpo inoren laguntzarik izan. Giroa erdalduna.

Zergatik utzi zuen

Zaila egiten zitzaion bulegoan zituen kezka, abisu larri edo arazoak alde batera utzi eta ordu eta erdi ikastaroan egotea. Burua beste leku batean zuen eta ez zen behar bezala kontzentratzen. Bezeroak berehala artatu behar dira arazoak daudenean eta berak presio hori sentitzen du ikastaroan dagoenean.

Gai orokorretan, elkarrizketak ulertzeko edo jarraitzeko maila duela aitortzen du baina gai konplexuetan ez, gaztelaniaz ere askotan ez direlako errazak.

Beti ere helburua ulertzea izan da, ez euskara ikastea, badakielako ez duela inoiz gaztelaniaz transmititu dezakeena transmititu ahal izango, errekurtsio faltagatik. Ingelesarekin nahiko ondo moldatzen dela dio baina ingelesez aritzen denean ere konturatzen dela zenbati errekurtsio falta zaizkiola eta egoerak kudeatzea gehiago kostatzen zaiola bezeroekin.

Lan- mundua

Lan munduko euskarazko dinamikak oso naturalak direla dio eta ez dela inoiz gaizki sentitu. Euskaldunak euskaraz ari badira eta jarrai badezake, bada ondo, baina gai teknikoak direnean dio gaztelaniara pasatzen direla beragatik langileak eta konturatzen ez badira eta euskaraz jarraitzen badute gai teknikoetan bada, beti egoten dela bateren bat, modu oso naturalean esaten duena: goazen hori gaztelaniaz komentatzera denok ez dugu ulertzen eta. Ez du arazorik izaten.

Aukerak, esperientzia berriak

Berarentzat gaiak jartzen dute muga. Gai errazak uler ditzake baina zailak ez. Berbalagunak funtziona dezakeela dio euskaraz ikasten ari direnentzat.

8. Elkarrizketa	Lantokia: Fagor Arrasate, Mondragoe	Saila: Elaborazioa, estanzapazioa
Adina: 38	Lan-mota: mandrinatzeko makinako langilea	

Gasteizen jaio arren, Arrasatekoa da eta gurasoak erdaldunak dira.

Euskararekiko harremana (biografia linguistikoa)

Ikasketa guztiak A eremuan egin zituen Arrasateko eskola publikoan. Gero, Eskola Politeknikoan egin zituen Heziketa Profesionaleko ikasketak eta euskara ikasgai bezala eduki zuen.

20 bat urte zituela AEDk antolatutako euskara eskoletara joan zen eta ikasturte bat egin zuen han (arratsaldetan 2 ordu). Hasierako mailan zegoen. Gogoan du

ariketa solteak egiten zituztela, esaldiak osatu eta abar. Gehien bat gramatika lantzen zuten.

Lanean hasi zenean ordutegiak ez zetozkion ondo eta utzi egin zuen.

Ondoren, Fagor Arrasaten hasi zen lanean eta alaba bat izan zuen. Alabarekin euskaraz egiteko berriro hasi zen ikasten eta AEKn bi ikasturte egin zituen eta beste urte batean irakasleak etxeko lanak jartzen zizkion eta gero tutoretzetara joaten zen. Taldeko ariketak, jolasak, bideoak eta abar erabiltzen zituzten, beste metodologia bat. Gainera etxean telebista eta irratia euskaraz entzuten zituen eta ulermena asko hobetu zuen. Hala ere hitz egiten ez zen askatu. Lotsatia da, kosta egiten zaio, ondo ez badu esaten urduri jartzen da, hanka sartzea inporta zaio.

Ingurua erdalduna izan du beti: familia eta lana.

Motibazioa? hasiera batean apuntatu zenean motibazioa indartsua zen, ikasi egin nahi zuen, amorrua ematen dio euskara ez jakitea hemengoa izanda. Ulertu egin nahi zuen, ez zaiolako gustatzen besteak beragatik hizkuntzaz aldatzea.

Bigarren aldiz hasi zenean motibazioa alaba izan zen gehien bat.

Zergatik utzi zuen

Bigarren haurra eduki zuenean, denbora faltagatik utzi egin zuen. Gainera aitortzen du zeharo deskonektatu duela eta ez duela jarraitu irratia, telebista eta abar euskaraz entzuten. Utzita dauka dena.

Lan- mundua

Bilera informatiboak euskaraz eta gaztelaniaz egiten dituzte eta jendeak aukeratzen du hizkuntza. Bere kasuan, batzuetan laneko txandagatik gaztelaniazko bilerara joatea ez datorkio ondo eta euskarazkoetara joaten da. Nahiko ondo ulertzen duela dio, euskara batutik gertuko euskara erabiltzen dutenean. Euskalkiarekin arazo gehiago ditu. Gainera aitortzen du hitz berriak ikastea gustatzen zaiola, eta zerbait ez duenean ulertzen edo berria denean atentzioa jartzen duela hitz hori ikasteko.

Batzen Nagusia ere euskaraz izaten da eta itzulpen automatikorako sistemarik gabe jarraitzeko gai da, nahiko ondo jarraitzen du dena, den dena ulertu ez arren.

Burdinkaria aldizkaria (Fagor Arrasaten hiruhilero euskara hutsean ateratzen den berripapera) irakurtzen du eta ondo ulertzen du.

Erreleboka egiten du lan eta bere txandako gehienak euskaraz hitz egiten dute. Beraien arduradunarekin egiten dituzten bileretan egoera hau izaten da. Arduraduna euskalduna da eta denekin ari denean gaztelaniaz aritzen da, badakielako den-denak ez dakitela. Baina euskaldunak interbentzioetan euskaraz egiten dute eta nire elkarrizketatuak ulertzen die. Ez da deserosoa berarentzat. Ogitartekoa jateko deskantsuetan ere, euskaldunak beraien artean euskaraz egiten dute. Bera elkarrizketan sartzen bada gaztelaniaz egiten diote.

Aukerak, esperientzia berriak

Bere ustez euskarazko dinamiketan parte hartzeko ikasi egin beharko luke eta gainera bere kasuan uste du barnetegi bat beharko lukeela euskaraz hitz egiten hasteko, zerbait trinkoa eta mintzamenera begirakoa, kosta egiten baitzaio.

Fagor Arrasate barruko euskara eskolek duten alde txarra orduak errekuperatu beharra dela dio. Hiru ordu baldin badira astean, gero hiru ordu horiek errekuperatu egin behar dira. Erdia bada ere enpresak bere partetik jarri beharko lukeela dio.

Euskara Planaren kasuan, iruditzen zaio tailerrera ez dela askotan informazioa iristen eta hori faltan botatzen du.